

**guaixe**

SAKANAKO ASTEKARIA

2019-12-20 OSTIRALA / 711. ZENBAKIA / 2. AROA

SAKANAKO ASTEKARIA GUAIXE.EUS TOKI.KOM

**25**

batzen  
gaituena



Oporretara goaz!  
Hurrengo Guaixe astekaria  
ilbetzaren 13an izanen da

Gabonetan ere,  
ez ahaztu zure  
betaurrekoak



**Sakanapitiho**  
Zorionak eta  
urte berri on!

948 563 124 | Altsasu



# "Ez dut imajinatzen Sakana Guaixerik gabe"



Guaixe proiektu komunikatiboak gaur 25 urte betetzen ditu. Hilabetekaria sortu zuten Amaia Amilibia eta Aitziber Etxaiz altsasuarrek eta Olatz Irizar ziordiarrek, eta "atzean" egon zen "jende askoz gehiago". Denborarekin astekaria bihurtu zen eta tartean Beleixe irratia sortu zuten ere

## Erkuden Ruiz Barroso SAKANA

1994. urtean Amaia Amilibia, Aitziber Etxaiz eta Olatz Irizar kazetaritza ikasleak ziren EHUko Leioako fakultatean. Euskal Herrian garai horretan tokian tokiko herri aldizkariaren boom-a izan zen. "Eskualde askotan hasi ziren euskarazko komunikabideak sortzen", azaldu du Aitziber Etxaizek. "Gainera, irakasleek galdetzen ziguten ea gure eskualdean ba al zegoen aldizkaririk". Baldin bazegoen bertan kolaborazioak egiteko gomendatzen zieten, ez bazegoen "zerbait sortzea" gomendatzen zitelako gogoratu du Olatz Irizarrek. Hiru sakandar Leioan kazetaritza ikasten ari ziren, beraz, "nahi eta nahiz ez" Sakanan "zerbait" sortu behar zuten. "Nolabait egoerak bultzatu gintuen". Egoerak bultzatuta 1994ko abenduaren 20an Sakana eskualde osoa haritzen zuen Guaixe euskarazko aldizkariak argia ikusi zuen.

Lehenengo alea eskuetan izan zuenean, "ai, ama, orain hau ba-

natu behar da", pentsatu zuen Etxaizek. Irizarrek ez du oso ongi gogoratzen momentu hura, baina "harrotasuna" sentituko zutela uste du. "Baina lehenengoa zen, hasiera. Bai, lehenengoa bazegoen, baina oraindik lana egiteko zegoen". Hortaz, lehenengo urtea "poztasun" handiagorekin gogoratzen du Irizarrek: "hamabi egin genituela ikusi genuen". Izan ere, tokiko hedabideen boom horretan sortutako aldizkari asko bidean gelditu zirela azaldu du.

Euskal Herriko tokiko komunikabideen boom-a, hiru sakandar kazetaritza ikasten ari zirela eta hirugarren faktore batek izan zuen eragina Guaixeren sorreran: "Sakanako Mankomunitateko Euskara zerbitzuan, paraleloan eta guk jakin gabe, horren inguruko kezka bazegoen. Sakanak komunikabide propio bat, euskaraz, behar zuela garbi ikusten zen". Beraz, Mankomunitatean zerbait egiten hasiak zirela azaldu du Irizarrek. Etxaiz: "Publizitate euskaraz salduko ote zen

jakiteko ikerketa bat egin behar zuten".

Amilibiak hartu zuen Mankomunitatearendako ikerketa lana egiteko ardura, Irizarrek azaldu duenez. "Lantegitara eta komertzioetara joan zen galdetzeraz ea prest egongo lirartekeen publikitate jartzeko hemengo aldizkari bat sortuko balitz". Faktore guztiak elkartu ziren, eta proiektuak forma hartu zuen. Lanketa prozesuarekin hasi ziren. Irizarrek goraiatu duenez, "beti esaten digute gu hirurok izan ginela Guaixeren sortzaileak. Baina ez da egia, jende asko egon zen gure atzean". Haien proiektua zen, "baina laguntza juridikoa eta bestelako babesa" behar zutela gaineratu du Iñaki Mundiñano hasieratik proiektu komunikatiboan parte hartu duen etxarriarrak.

## Bierrik

Herrietako euskara taldeetara jo zuten laguntza eske. "Herri guzti-guztietan ez zegoen euska-

ra talderik, baina bai gehienetan". Gainera, nahiko "indartsuak" zirela esan du Irizarrek: "Lan handia egiten ari ziren euskararen normalizazioaren bidean". Hala ere, "bere kabuz" funtzionatzen zutela azaldu du Etxaizek. Hainbat taldek aldizkari propioa zuten: esaterako, Lakuntzakoa eta Urdinaingoa gogoratzen dute Etxaizek eta Irizarrek. Koordinatzen hasi ziren eta "kristonako lan taldea" izan zuten hiru gazteek atzean: "Beraiek ikusi zuten eskualdekoak zeukala garrantzia. Sortzeko aukerak zeudela ikusi zen, eta bakoitzak berea utzi zuen eskualdekoaren, Guaixeren, onerako".

Guaixe sortu ahal izateko, el-

karte bat behar zuten. "Egoerak bultzatuta", beraz, Bierrik elkarrekin sortu zuten, gaur egun Guaixe Fundazioa dena. "Guaixe

**Hazi bat erein zuten duela 25 urte. Hazi hazi da eta Guaixe zuhaitz handia da dagoeneko. Guaixeren sustraiak Sakanan errotu dira eta milaka hostotako adaburua sortu da. Guaixek adar asko ditu: handienak, agerikoenak, Guaixeko langileak dira. Eta enborretik adarrak zabaltzen dira lau haizeetara, adarretatik hostoak eta hostoetatik loreak, fruituak eta haziak. Udazkenean gaude: hostoak lurrera erortzen ari dira, hosto horiek sustraiak elikatuko dituzte, eta hazietatik basoa hedatu eta handituko duten zuhaitzak sortuko dira.**

**Bazkideak Guaixe ernaltzen lagundu duzuen hostoak zarete. Eta orain, proiektua ernaltzen eta hedatzen laguntzea nahi dugu. Hemen duzu hazi-bazkide egiteko txartel bat. Hazi horietako bakoitza bazkide berri bat da. Lagundu haziak ereiten, lagundu proiektu hau ereiten.**

Oparitu  
bazkideak!  
50 euro dira urtean!

Izena \_\_\_\_\_

Abizenak \_\_\_\_\_

Nortasun agiria \_\_\_\_\_

Helbidea \_\_\_\_\_

Herria \_\_\_\_\_

Posta kodea \_\_\_\_\_

Telefonoa \_\_\_\_\_

Posta elektronikoa \_\_\_\_\_

Kontu zenbakia \_\_\_\_\_

Jaioturtea \_\_\_\_\_

Ekarri datu hauek bulegora  
edo [www.guaixe.eus/bazkidetu](http://www.guaixe.eus/bazkidetu)  
webgunean bete



sortzeko helburuarekin legalki zein urrats eman behar ziren begiratzaren hasita, norbaitek argitaratu behar zuela ikusi genuen. Pertsona bat izan zitekeen, baina ez genuen ikusten", azaldu du Irizarrek. Eskualde mailako euskararen inguruko elkarte bat sortu beharra zegoen: "Euskara talde guztiak inplikatu genituen, eta horrela sortu zen Bierririk elkartea". Mundiñano ez zen sorreran egon, "baina berehala harripatu" zutela esan du: "Euskararen erabilera zehazteko; euskalkietan idazten zen eta batzorde bat sortu zen, aholkuak ematen genituen...".

"Argi ikusten genuen izenak eskualdearen euskararekin egin behar genituela. Baziren hainbat hitz eskualde guztirako balio zutenak, bereziak zirenak". "Beharra" zegoen horrelako elkarte eta komunikabide bat sortzeko, eta "Bierririk" izena atera zen. Guaixe izena gehiago kostatu zitzaizela azaldu du Irizarrek: "Elkartearen izenari ez genion aparteko garrantzirik eman komunikabidea sortzeko bidea zelako. Baina aldizkariena garrantzitsua zen; behintzat niretako". Zerrenda bat osatu zuten, eta euskalkiari begirata "Guai" hitza atera zen. "Baina guai gaztelaniaren guay-rekin konfunditu zitekeen eta ez zen ondo gelditzen". Lakuntzako Ana Gilek irtenbidea bilatu zuen: "Guaixe", oraintxe. "Guztiei gustatu zitzaigun".

**Urdiaingo udaletzeko gela txiki bat** Denboraren perspektibarekin ikusita hasierak "errazak" izan zirela uste du Irizarrek. Etxaizek ere ez du "erraza edo zaila" izan zenik gogoratzen: "Gazteak ginen, ez dut esango zaharrak garenik ere, baina ilusi handia genuen". Ilusioak bultzatuta aurrera egin zuten. "Egia esan lan egiteko modua oso prekariora zen. Baina 22 urte genituen eta indar handia genuen hori egiteko", gogoratu du Irizarrek. Ziordiarrek gogoratzen dituen "zailtasunak" lehenengo alea inprentara eramanez aurreko egunak dira: "ordu asko izan ziren, beti zegoen zerbait aldatzeko, zerbait hobetzeko...".

Baina "beste guztia", elkartearen sorrera, aldizkaria mar txan jartzeko prozesua eta abar, "oso modu errazean" gogoratzen du.; "agian 25 urte pasa direlako". Urdiaingo Udalak utzitako gela "txiki" batean sortu zen Guaixe. "Justu mahaia" sartzen zela gogoratu du Etxaizek. Hasiera hartan Olaztikoko Udalak utzitako "ordenagailu bakarra" zuten. "Horrekin hasi ginen, baina nahikoa izan zen". Handik bi hilabetez Urdiaingo Udalak "hemen ezin zarete egon" esan, eta gela handiago bat eskaini zutela azaldu du Etxaizek. "Bulegoa sortu genuen". Poliki-poliki ordenagailu gehiagoz hornitu zuten bulegoa. Garai hartan maketatzeko hobe Macintosh-a omen zen, beraz, lehenengo erosketa ordenagailua izan zen: "Aitziberrek eta biok, ezjakintasunetik, Amaiak erakusten zigunarekin flipatzen genuen. Ez dakit zenbat balio zuen, oso garestia zen, eta harrigarria iruditzen zitzaigun ordenagailu batengatik hainbeste ordaintzea".

Unibertsitatean zizeron deitutako erregela batekin maketatzen zuten bitartean, Guaixen Macintosh bat zuten. Argazkiak publikitate truke Xenda argazki dendan errebelatzen zituzten eta inprenta Arrasaten zegoen. "Lehenengo zenbakiaren bila joan ginen eta

Urdiaingo udaletxearen ezkaatzan jarri ginen euskaldunen helbideen pegatinak jartzen. Esku lana izan zen", azaldu du Etxaizek. Ondoren, hilabetekariak postetxera eramaten zituzten. "Eskerrak eman nahi dizkiot, bereziki, gurean dagoeneko ez dagoen Felix Iriarteri. Askok lagundu zigun. Irurtzundarra zen eta berea balitz bezala hartu zuen. Arakil zonalde guztian berak banatzen zuen".

Guaixen asko ikasi zuten. Lan guztiak egiten zituztela "agian gehiegi" dela esan du Irizarrek. Izan ere, komunikatzaile eta berriemaile sare handia zuten. Baina eguneroko lana Amilibiak, Etxaizek eta Irizarrek egiten zuten. Amilibiak maketazioa kontrolatzen zuenez, "ausardia handia" izan zuen eta maketazio lana hartu zuen. Oraindik ez zituzten ikasketak amaitu, eta Olatzek ez zuen Bilbon "jarraitzeko gogorik". Beraz, "nik publikitate egingo dut" esan zuen, "horrek derrigortzen ninduen Ziordin, nire herriaren, egotera". Hortaz, idazteko ardura gehiena Etxaizek zuen. Koordinazio lana egiten zuela ere gogoratu du altsasuarrak. Irizar: "Baina hirurek oso argi geneukan kazetariak ginela, hau da, ni ez nintzen publizista ni kazetaria nintzen; horregatik sartu nintzen proiektu honetan.

Beraz, noizbehinka elkarriketak eta egiten genituen ere".

### Dinamismoa

"Guretako gure lanbidea zen. Hasieratik diru bat jasotzen genuen. Ez zen besteko ezer, baina dirua jasotzen genuen". Irizarrek hasieratik proiektu profesionala izan zela uste du; kontrako iritzia du, aldiz, Etxaizek: "nik neure burua ez nuen ikusten profesional bezala. Nik neure burua euskaltzale bezala ikusten nuen. Bere eskualdeko berriak euskaraz idazteko gogoak zuten euskaldun bat bezala".

Egunerokoa lanean zeudenek, Irizarrek azaldu duenez, "nahikoa genuen hilabetekoa ateratzearekin", baina Bierririk elkartean "distantziarekin" ikusten zuten egoera. "Garbi ikusten zuten: hilabetekaria sortu dugu, eskualdean errotzen ari da, baina zerbait gehiago behar dugu". Euskarak dinamikoagoak ziren komunikabideak behar zituela uste zuten. "Bierririk elkartearen barruan eman zen eztabaida bat izan zen, eta gu elkartearen barruan geundin eta elkartean esaten zena normalean onartu egiten genuen". Gainera, langileek ere argi ikusten zuten medio dinamikoagoak behar zirela. "Lan gehiago suposatzen zuen. Ordura arte egiten genuenari buelta erdi ematea suposatzen zuen, baina beharrezkoak ziren; eta horregatik sortu genituen". 1999ko maiatzaren 7an Beleixe irratien lehenengo emisioa izan zen eta 2001ean Oixe astekaria publikatu zuten. Hilabete batzuetan hiru komunikabideak batera bizi izan ziren, baina, azkenean, 2004ko urtarriaren 24an Oixe eta Guaixe publikazio bakarrean fusionatu ziren: Guaixe astekaria.

2000. hamarkadaren hasiera mugarri izan zen proiektu komunikatiboarendako. Komunikabide berriak sortu ez ezik, "erronka" berri bat izan zuten ere. Egoitza propioa izateko "apustua" egin zen, Mundiñanok gogoratu duen bezala. "Izugarrizko laguntza eman zuten udalek, kasu honetan Urdiaingo Udalak, baina lan bolumena handitu ahala lokala txiki gel-

ditu zen". Altsasuko egoitza 2003an mustu zuten. Aurretik, behean zegoen Bierririk taberna mustu zuten ere. "Urrats handia izan zen, egoitza propioa izan baino ikusgarritasuna izan zela esango nuke". Izan ere, Irizarrek aipatu duenez, Urdiaingo gela hartan "gustura" zeuden, baina, adibidez, "ez zuen inon jartzen Guaixe aldizkaria". Altsasu erdian, eskualdeko herririk handienean, kartel handi batekin egotea, beste izaera bat ematen dio. Etxaiz eta Irizar ez ziren aldaketan lekuko izan, dagoeneko beste proiektuetan zeudelako.

### Sarea

Guaixek euskaltzaleen sarea sortu zuen. "Sekulan" ez dela "bakarrik sentitu" esan du Etxaizek. Izan ere, Guaixeren atzean "jende asko zebilen". Gehienak euskara taldeetako pertsonak ziren. "Seguruenik norbait ahaztuko dut, baina Jose Mari Arakama, Eneka Maiz, Iñaki Mundiñano, Mikel Galartza, Reyes Flores, Ana Gil...". Arakama bereziki gogoan du Etxaizek; berarekin kazetaritzaren bost urteetan baino gehiago ikasi zuela onartu du: "Ohore bat zen Arakama bezalako euskara aditu batek gu zuzentzea. Gu kazetaritza ikasleak ginen eta berak eskuz zuzentzen zigun; ez bakarrik zuzendu, zergatik egiten genituen akatsak azaltzen zigun, berriz ere ez egiteko".

Komunikatzaile eta berriemaile sare handia sortzea lortu zuten. Batzuk eskuz idazten zituzten testuak, beste batzuk garaiko idazteko makinekin, baziren ordenagailuz idazten zutenak ere. Gainera, berriemaileek urtean zehar egiten zuten lana eskertzeko afariak egiten zituzten Sakanako berriemaile guztiekin. "Oso oroitzapen politak" dituzte.

Proiektua aurrera eramateko dirua behar zuten, eta administratzailea jo zuten diru laguntzen eske. Irizarrek eramaten zituen diru laguntzak. "Bi tokitara joaten ginen: Sakanako Mankomunitatera eta Nafarroako Gobernura. Mankomunitatean dena erraztasunak ziren. Aldizkaria bera aurkezten genuen eta Peiok eta Yolik dena bideratzen zuten. Nafarroako Gobernua lan gehiago egin behar zen".

Diru laguntzen "pezeta bakoitza" justifikatu edo "zuritu" behar zuten, eta horretarako fakturak eta abar aurkeztu behar zituzten.







## 'Guaixe', urtebete lanean

1994. urteko abenduaren 20an kaleratzen zuten Sakanako euskarazko albisteetarako lehenengo arabiar...



### «Dugunari eutsi eta indartu»

1995ko abenduak  
22eko  
Euskaldunon  
Egunkaria.  
BERRIA

kanan Guaixe ezagutzen ez duena. Ohitu gara astero izaten, sare sozialetan, prentsurrekoetan... baina kontziente izan behar dugu horren atzean jendea dagoela, lana dagoela, eta jendeak benetan lan profesionala egitea eta benetan ongi komunikatzea nahi badu, proiektuak laguntza behar du. Beste 25 edo ez dakit zenbat urte gehiago betetzeko".

### Garapena

Guaixe etengabe eraldatu den komunikabidea da. Garaietara ongi egokitu da. "Guk argitaratu genuen lehenengo Guaixe hura eta aurreko astean kaleratutakoa hartzen dituzu, eta izugarritzko aldaketa dago. Hilabetekaria izatetik astekari izatera, formatua ere desberdina da... Bitarte horretan eredu asko egon dira ere... izugarria da", esan du Etxaizek. Teknologia berrietara ere egokitu da, Mundiñanoren arabera, "nahi eta nahi ez hartu beharreko" erabakia izan da. Izan ere, informazioa kontsumitzeko modua izugarri aldatu dela azaldu du, eta "gazteek papera ez dute ukitzen, baina bestelako modutan informatzen dira". Hortaz, "Guaixek egon behar du, besteek bezala". Interneteko sarea Guaixen ezagutu zuten Irizarrek eta Etxaizek, "arbizuar bat zegoen Amerikako Estatu Batuetan tesia egiten, eta handik testuak bidaltzen zituen. Harrituta gelditzen ginen". Gaur egun, aldiz, e-mail asko jaso ez ezik, edukiak ere konpartitzen ditu Guaixek web orriaren eta sare sozialen bidez. Gainera, ostiraletan publikatzen da eta Beleixe irrateria ere uhinetan ez ezik online entzun daiteke.

Guaixe "komunikatzen" ikusten du Mundiñanok: "Jendearen artean izen ona dauka. Interneten jendea asko ibiltzen da, eta albisteak trukatzeko dituzte, sare sozialetan badabil... ongi ikusten dut". Irizarrek Sakanako gizartearen "erabat sustraituta" dagoela uste du: "Ez dut imajinatzen Sakanako Guaixerik gabe. Sarea egiteko balio du, eskualdea egiteko balio du. Bere hobetzeko gauzak ditu, edozein proiektu bezala". "Osasuntsu" ikusten du Etxaizek. "Ostiral goizetan gustura hartzen dudana komunikabidea da. Hobetu daiteke, baina gauza guztiak bezala. Orain arteko ibilbide honetaz harro nago. Bertan jendea gogotsu eta aditua dagoela ikusten da".

baina "proiektu batekin ezin du diru laguntza bakarrik bizi", esan du Irizarrek. Hortaz, elkarteak sortzeko eta laguntzeko bazkide kanpaina bat egin zuten eta 500 bat bazkide egin zirela azaldu du Mundiñanok. Ondoren, "krisi garaia etorri zen. Krisia baino Nafarroako Gobernuak diru laguntzak kendu izatea detonatzaila izan zen. Ez zegoen hainbeste zuloa, baina gure proiektu txikiarendako asko zen". Krisiari "eskerrak" ere eman behar zaio, izan ere, horri esker kanpaina "handi" bat egin zuten: "Sakandar bateuro bat kanpaina atera genuen, 20.000 euro horiek berreskuratzeko". Gaur egun, 1500 bazkide inguru ditu Guaixe Fundazioak, "Sakanako elkarterik handienetarikoa izango garaela uste dut".

Bazkidetzatza "oso garrantzitsua" dela esan dute Etxaizek, Irizarrek eta Mundiñanok. Edozein komunikabide zein proiektu diru laguntzen menpe bizitzea "oso zaila" dela esan du Irizarrek; hortaz, diru sarrera "propioak" izatea garrantzitsua dela gaineratu du: "Horrekin batera sarearen ideia indartzen da. Guaixen gaur egun langileak zarete, bazkideak gara, eta horrek eskualdea egiten laguntzen du". Etxaizek sakandar euskaltzale guztiak bazkide egitera "derrigortzen" ditu. Mundiñanoren arabera, asko "eskaintzen" da, diru kopuru txikiaren truke: "Oso jende gutxi dago Sa-

"Garai horretan dena eskuz egiten zen. Gobernuaren egoitzan aurkezten nintzen faktura eta karpetak guztiekin eta teknikariarekin banan-banan begiratzen egoten nintzen". Miren Egañarekin tratatzen zuten Irizarrek: "Zerbait gaizki egiten nuenean moñoña deitzen zidan: ai, moñoña, gauzak ez dira horrela egiten. Ni amorratuta etortzen nintzen eta Amaia eta Aitziberri kontatzen nien: moñoña deitu dit, baina zer pentsatzen du horrek. Guaixeko langilea naiz, ez ume moko bat azalpenak behar dituen". "Oso gaizki" gogoratzen ditu zuriaketak egin behar zitueneko momentu horiek, izan ere, "dena ongi" egiten saiatzen ziren. Mundiñanok Eusko Jaurlaritzak diru laguntzak ere eman izan dituela gogoratu du.

Sakandarren laguntza "soziala" ez ezik, ekonomikoa ere behar izan zuten. Behin Etxaiz Jose Mari Satrustegiren etxera joan zen, hilabetero idazten zuten kronika hartzera, eta bere zaintzailea zen Maria Doloresek 2000 pezeta eman zion. "Oso emakume jatorra zen, euskalduna, eta oso hunkituta Guaixerako dirua eman zidan, laguntzeko". Ez zuten dirua eskatzen, eta ez zion hartu nahi, "baina berak hartzea nahi izan zuen. Oso eskertua zegoen". Proiektuak diru laguntzekin aurrera egin zuten,



Gure Izarraren 1888ko urriaren 30eko astekaria. GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## Zaharrak berri, Sakanako albiste zaharrak

Sakanaren berri ematen 25 urte bete ditu Guaixek. Gauza bera egin zuen 1888an Gure izarrak

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Euskararen berreskurapen eta sendotzearen adierazlea da Guaixe, Sakanaz euskaraz informatzen 25 urte bete dituen hedabidea. Mende laurdena bai, gazte askok orain jakin dute hori, urteurrena ospatu dugunean. Haiendako, Guaixe betikoa baita. Betidanik ezagutzen dute etxean. ETB, Euskadi Irratia, Argia, Berria, Gaztetxulo, Elhuyar edo beste hainbat bezala. Baina euskarazko hedabiderik gabeko garai bat izan zen ez dela asko. Hala ere, Guaixe ez zen izan Sakanaz eta euskaraz informazio orokorra eman zuen lehena. Ibarreko herrietako albisteak gure hizkuntza idatzirik etxera sartu zuten aurretik hainbat argitalpen. Nafarroako Gobernuak frankismo bukaeran argitaratzen hasi zen Principe de Viana aldizkariak izan zen aurrekari bat. Hartan Jose Mari Satrustegik askotan idatzi zuen.

Baina atzerago jo behar dugu Sakanari buruzko albisteak euskaraz idatziak opatzeko. Nahiz eta, beste hizkuntzen aldean, euskarazko kazetaritzaren historiari erreparatzen badiogu, aurrekariak aurrekari, XIX. mendera arte ez ziren proiektu sendorik sortuko. Baionan Agosti Xahok 1848an argitaratuko Uskal Herrico Gasetara har daiteke euskarazko aurreneko egunkaritzat.

Ameriketara migratu zuten euskal herritar askok XIX. mende erdialdetik aurrera. Euskal migratzaileek euren herriko

albisteen gosea ase asmoz zenbait komunikazio proiektu sortu ziren. Haietako bat da Gure izarra: Euscalerrico berriac astean bein. Egunkari horrek bi zuzendari zituen: Jean-P. Lengoust European eta Francois Bouquet Amerikan. Garai hartan European iritzi kazetaritza zen nagusi eta Gure Izarrak informazioa ematearen aldeko apustua egin zuen. Aurreneko zenbakia, 1888ko lastailaren 30ean, asteartean, argitaratu zuten Parisen, Imprimerie Lucotte et Cadouxen. Aldizkariaren bi zenbakik besterik ez zuten argia ikusi. Aipatutakoaz aparte, zero zenbakia zuena, 1888ko lastailaren 13ko data duena. Euskara hitz egiten zen herrietako albisteak jaso zituen astekariak, zazpi lurraldeetakoak.

### Sakanaz

Aurreneko zenbakiak bederatzirorri zituen eta Nafarroako albiste gehienak laugarren orrian agertu ziren, Euscalerrico berriak goiburupean. Orduko albiste haiek hona ekarri ditugu, orduan eman zituzten bezala. Ibarrekoez aparte hainbat herrietako albisteen berri dago orri horretan. Akaberan, sinadura moduan, A bat ageri da. Sakanari buruzko aurreneko euskarazko albisteak, beraz, anonimoak dira.

Astekarian Irurtzango, Altsasuko tren geltokiko, Satrustegiko, Etxarrego, Ekaiko eta Zuhatzuko albisteak argitaratu zituzten. Baita ehizari buruzko bat ere. Duela 131 urteko albiste horiek www.guaixe.eus-en daude irakurgai.



ASTEKOA

XABIER REPARAZ EXTRAMIANA

## Adventus

Adventus, gaztelaraz adviento. Eliza katolikoaren egutegian bostgarren mendetik bederen aipatzen den hitz latindarra, gure arbasoek erromatarren decembris hilabeteari izena emateko aukeratu zutena. Elizaren boterea handia zen nonbait baskoien artean. Abendua, adventus, datorrenaren zain egotea esan nahi omen du. Kasu honetan eguberriren zain egoteko denbora. Antzinako erromatar haiek, barbaroekin borrokan ezin gailendurik, behar bezalako ospakizuna egiteko denboran aurreratu eta giroa berotzen joan behar zela pentsatu zuten. Honela, San Martin egunetik, azaroaren 11, sei asteko baraualdi bat egitea proposatu zuten agintari erlijiosoenak. Azkenik, gehiegitxo iruditu antza, eta lau astetan utzi zuten. Baraualdia amaitzean tripa festa bikaina prestatzen zuten, afari, bazkari, opari edo behar zenarekin.

Gaur egun, gabon girotze prozesuak gutxi dauka baraualditik. San Martin eguna baino askoz lehenago, Halloween amerikarraren ostean azaroaren ateetan. Hau gutxi balitz, badaezpada ere norbaitek gutxi kontsumitu eta enpresei

## ABENDUA, ADVENTUS, DATORRENAREN ZAIN EGOTEA ESAN NAHI OMEN DU

murgiltzen gaitu sarri horrenbeste ekintza xahutzailek. Izan ere, erlijiotik gutxi izan du hasieratik neguko solstizioaren ospatzeak. Eguzkiaren eguneroko biran, Ergoienako txokoak Andiarren itzal itsaskorretik libratu eta Sakana erditik igarotzeraino bueltan datorren eguzki izpi epelen ospakizun izan zen hasiera batean. Beti aitzakia bila urte amaieran ospakizunetan eguzki gabeko ordu luzeak arintzeko. Ongi bukatu urtea!

**GUTUNAK:** Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NAN zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

## HARA ZER DIEN

### Nabarmena eskatuz

#### SAKANAKO SARE

Esan genezake zerbaitek huts egiten duela, gizarte honek nabarmena dena eta logikaz, etikaz eta justiziaz jadanik gauzatua beharko lukeena eskatuz segitzen baitu. Baina XXI. mendeko gure Nafarroa honetan, oraindik, egoera jasanezinak pairatzen jarraitzen dugu: haurrei barrea eraginez gozarazten dituzten pailazoak debekaturik, bizi osoa lanean eman duten gure nagusiak pentsio iraingarriekin prekarietatez bizitzera kondenaturik, emakumeak eguneroko prekarietatearen eta indarkeriaren mehatxupean beldurrez bizitzera kondenaturik, tabernako liskar huts batengatik gazte batzuk 10 urteko kartzela zigorrera kondenaturik.

Laburbilduz, halako egoera batean gaude, non erantzun gabeko eskaerak, bidegabekeriak eta eskubide urraketak gehiegizkoak diren. Baina, aldi berean, dagokiona

eta etorkizun hobe bat eskatzeko kalera ateratzeko zalantzarik ez duen jendarte baten aurrean gaude. Eta horrelaxe egingen dugu, berriz ere, abenduaren 21ean Iruñean, gogorarazteko oraindik Estatuak salbuespeneko espetxe politika aplikatzen segitzen duela. Mezu argi bat bidali nahi dugu gizarteak horrenbeste erreklamatzeko duen elkarbizitzaren alde, gizarte horren gehiengoaren enpatia ariketa bat egiteko prest baitago.

Arrazoi politikoak direla-eta gaur egun Nafarroan 37 preso dago. 941 pertsonak osatzen dute preso horien ingurune hurbila. Horiak guztiak, bere senide eta lagun prosoei bisita egin behar dieten aldi oro, zigorturik daude bidaia bukaezinetan ehunka

kilometro egitera eta beharturik "bizia eta ogasuna" arriskuan jartzera, sekula abiatu behar ez zituzten bidaietan, baldin eta legea eta sen ona nagusi izan balira. Errurik ez badute, zergatik familiak zigortu, mendekuagatik eta sufrimendu gehiago eragiteko nahiagatik ez bada?

Gizarte hau heredatu genuena baino etorkizun hobe erreklamatzeko ari da, bakean eta elkarbizitzan oinarrituriko etorkizuna heldu diren belaunaldiendako. Eskarmentuak erakutsi digu irtenbideak ez direla sartzen leihoa irekitze hutsarekin. Kaletik bultzatu behar zaie indartsu, lekua egiten bukatu dezaten. Horrexegatik da horren garrantzitsua 21ean zu Iruñean egotea, kaletik irtenbideei bultzatza egiteko, eta oraingoan inork leihok itxi ez ditzan.

## ERREDAKZIOAREN OHARRA

Aurreko zenbakian, Irañetako Udalararen osararen berri ematerakoan, jakinarazi genuen Sakanako 15 udaletatik lautan (% 26,66) emakumezkoak direla alkate. Ahaztu zitzaigun gaineratzea ibarrean 15 kontzeju daudela eta haietatik soilik bitan (% 13,33) direla emakumezkoak kontzejuko presidentek: Idoia Resano Igoa Dorraon eta Teresa Goikoetxea Arregi Lizarragabangoan.



# guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

[www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

#### Koordinatzaileak:

Goizeder Anton Iturralde  
fundazioa@guaixe.eus

#### Diseinu zerbitzua:

GK, Olatz Aldasoro Martinez de Ilarduia  
Ainhoea Etxeberria Pikabea  
gk@gkomunikazioa.eus

#### Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez  
admin@guaixe.eus

#### Zuzentzaileak:

Pabli Flores Lazkoz

#### Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

# Mank

s a k a n a

## BAZKIDEAK



#### Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa  
guaixe@guaixe.eus

#### Erredakzioa:

Maidier Betelu Ganboa  
kirolak@guaixe.eus  
eta Erkuden Ruiz Barroso  
kultura@guaixe.eus

#### Maketatzaileak:

lune Trecet Obeso  
maketazioa@guaixe.eus

#### Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano  
publi@guaixe.eus

#### ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa.  
Foru plaza 23-1.  
31800 Altsasu  
948 564 275  
948 562 107 (Faxa)  
618 882 675



**Nafarroako Gobernua**  
**Gobierno de Navarra**



# Arreta soziosanitarioan trebatutako emakumeak

Adinekoak diren edo mendekotasuna duten pertsonak behar bezala artatzeko ikastaroa jaso dute. Gurutze Gorriak eman du, Nafarroako Gobernuaren, ERSISlren, Altsasuko Udalaren eta Altsasuko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen laguntza izan du

## ALTSASU

Gurutze Gorriaren Enplegu Planak, Altsasun, "Errenta bermatua jasotzen duten emakumeendako ibilbide integral intentsifikatuak, egoera ahulean edo gizarteaz baztertzeko arriskuan daudenak" izeneko proiektua despiditu zuen astelehenean. Parte hartu duten emakumezkoen profila da: egoera ahulean edo baztertzeko arriskuan egotea, errenta bermatua jasotzen duen familia unitateko kide edo jasotzaile dira. 12k hasi zuten ikastaroa eta 11k despiditu dute: Fatima Aamer, Umel Fadli Abdelhai, Peace Appiah, Mina Bouanani, Svitlana Danylenko, Zelia De Jesus Machado, Amina El Ogdi, Zhor Missaoui Ep Missaoui Malacatus, Mercedes Larraza Elizondo, Aichetou Mohamed eta Naima Oulalit Ep Missaoui.

Aichetou Mohamedek ikastaroarekin parte-hartzaileek lortu dutena zerrendatu zituen. "Alde batetik, gure buruarengan konfiantza izaten eta gure beldurrei aurre-egiten ikasi dugu. Bestetik, baliagarriak sentitu gara, helmugak jarri eta haiek lortzeko borrokatzen ikasi dugu. Gainera, ikusi dugu gauza asko egin ditzakegula, ez dugula soilik etxeko andreak izan behar. Eta, garrantzitsuena, guretako eta gure seme-alabendako etorkizun hobe izateko beharrezko tresnak ditugula esan dezakegu".

Oulalitek ere hitz hartu zuen eta adierazi zuenez, "lehen ez genekizkienak dakizkigu orain, eta egunerokoan eta lana opatzerakoan baliagarriak izanen zaizkigu. Gainera, jende zoragarria



Ikastaroko parte-hartzaileak eta arduraduna.

## 575 PRESTAKUNTZA ORDU JASO DITUZTE SAKANAN LAN ESKAERA DUEN LAN ESPARRU BATEAN

ezagutu dugu eta laguntasun eta babes sareak sortu ditugu. Azkenik, gure mugak frogatzeko aukera izan dugu. Gure gaitasunak ezagutzen ditugu eta zer eskaini dezakegun argi dugu". Biek ere esker ona azaldu zuten eta halako ikastaroek segida izatea desiratu zuten: "parte-hartzaileen dako mesedegarria da, lan mundurako sarbidea eta esperientzia hartzea errazten die".

### Ikastaroaz

Maria Betelu Arbizu arduratu da ikastaroaz, baina zazpi hezi-

tzaile eta hiru boluntario izan dira guztira. Garagarrilean hasi abenduan despiditu da. Ikastaroan zehar Gurutze Gorrikoek gizarte- eta lan-akonpainamenduko ekintzak egin dituzte parte-hartzaileekin, bai bakarka bai taldeka. "Hemendik aurrera, lana bilatzeko ibilbide pertsonalizatua izango dute". Beteluk azaldu zuenez, sei hilabete horietan emakumezkoek "arreta soziosanitarioan prestakuntza intentsiboa jaso dute, emakumezkoen autonomia sortzeko".

Ikastaroan parte-hartzaileek gaitasun pertsonalak, zeharkakoak, hezkuntzakoak, hizkuntzakoak (gaztelania), eta lanprestakuntza jaso dituzte. Pertsonen arreta eta garbiketa arlotan ikasitakoa praktikan jartzeko aukera izan zuten adinduen egoitzan, klinikan edota etxez etxeko arreta zerbitzuetan.

## Lakuntzako, Etxarriko eta Altsasuko eskolei kalitate saria

Hezkuntza kontseilariaren eskutik jaso zuten kalitate zigilua asteazkenean

### SAKANA

Lakuntzako Herri Eskolak, San Donato eskolak publikoak eta Zelandi eskola publikoak Hezkuntza Departamentuak emandako kalitate-sariak jaso zituzten atzo, Nafarroako beste 27 ikastetxe publikorekin batera. Aurrenak Kalitatearekiko konpromisoa aitortza jaso zuen, eta gainontzeko biek Kalitate-zentroa izendapena. Kalitatearen Kudeaketa Sistema (KKS) SGCC 2013 araua ezartzeagatik jaso dute aitortza 30 ikastetxeek. Arau hori departamentuak berak sortu du, nazioarteko kudeaketa arauetan eta ereduaren oinarritua eta Nafarroako hezkuntzaren errealitate espezifikora egokituz.

Hezkuntza kontseilari Carlos Gimeno Gurpegik ikastetxeak zoriondu zituen, "hezkuntzarreta etengabe hobetzeko duten konpromisoarengatik, hori ikas-



Eskoletako ordezkariak. UTZITAKOIA

leen, familien eta hezkuntza-komunitate osoaren onerako baita". Irakasleen, ikastetxetako eta Kalitate Negoziatuko zuzendarien eta Departamentuko Hezkuntzako Ikuskaritza Zerbitzua- ren ahalegina aitortu zuen kontseilariak.



SASOIA

## Pentsio duinak, Parlamentura

Pentsio duinen aldeko mugimenduak bere eskaerak Nafarroako Parlamentura eta Altsasuko Udaletxera eraman zituen astelehenean. Elkartasunean eta banaketan oinarritutako pentsio sistema publikoa, egungo pentsiodunendako baita etorkizunean pentsioak izanen dituzten gaurko langileendako eta ikasleendako ere. Horixe aldarrikatzen du.



**EGOKI**  
VENTANAS PVC LEIHOAK  
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA  
egoki@ventanasegoki.com



**Acrylcolor**  
SISTEMA BERRIA  
KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti

ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea



Unanuko ikuspegia Lizarraga sarreratik.

## Unanuko Kontzejuak aurrekontua erdira jaitsi du

LED argiak jartzeko inbertsioaren ondoren murriztu egin da. Kontzejuak 2021erako aurreikusten ditu inbertsioak

### UNANU

Unanuko Kontzejuaren aurrekontua 2020 urtean 60.420 eurokoa izanen da, joan den urtean baino 67.500 euro gutxiago. % 52,76 hain zuzen ere. Jesus Mari Balda Mercero alkateak jakinarazi digunez, aldaketa aurten herri-argiterian LED argiak jartzeko egindako inbertsioagatik dago aldea. 47 argi puntuk argizatzen dute Unanu. Baldak argitu digunez, kontzejuak aurten ez du inbertsiorik eginen.

Hori bai, heldu den urtean aurrezten duten dirua 2021ean inbertitzeko asmoa dute. Zehazki, Denok Bat elkartearen gaineko solairuan bi apartamentu txiki egin nahi dituzte. Herriko gazteak han bizitzen jartzeko edo, kanpotik herrira jendea etortzeko. Hara igotzeko eskailera egokiak egin zituzten auzolanean lastailaren 5ean. Haiek alokatuta diru sarrera berria izanen luke herriak. Maistruena

zen etxea ere alokatuta dago, berritu eta gero.

Baldakesan digunez kontzejuak Beriaingo pista konpontzeko asmoa ere badu. Gainera, mendiak erakarrira etortzen diren pertsonen autoendako aparkaleku bat egiteko premia sumatu dute unanuarrek. Horregatik, herriko zenbait tokitan aparkatzeko debekua jarriz arrasto horiak margotu zituzten zenbait kaletan. Mendian gorako pistan ere aparkatzen dute. Hura erabiltzen duten abeltzainendako eta baso lanetan ari direnendako traba sortuz. Gainera, abereek edo animaliek kalteak sortu ditzakete ibilgailuetan. Horregatik, guztiagatik herri aparkaleku bat egiteko toki egokiaren bila ari da kontzejuak. Bera den lursailik ez baitu. Bitartean, diru sarrera gisa aurten baso aprobetxamendua saldu du kontzejuak eta 2020rako asmo bera du.

## Alokairurako etxebizitza premiarik badago?

Urdiaingo Udalaren galdetegia abenduaren 30era arte erantzun daiteke

### URDIAIN

Urdiaingo Udalak jakin nahi du urdiaindarren artea etxebizitza alokatzeko zein premia dagoen. Horregatik, galdetegi bat prestatu eta urdiaindarren artean zabaldu du. Bost galderaz osatutako galdetegi anonimoa da. Erantzuna ematen duenaren generoa eta adina zehazteko eskatzeaz aparte, honako galderak daude inkestan: zenbat logelatako etxebizitza hartu nahiko lukeen errentan, zenbat denborarako alokatu nahiko lukeen etxebizitza eta atzenekoa errenta aitortenean aitortutako diru sarrerak gutxi gorabehera zehaztea. Iradokizunak egiteko aukera ere ematen du inkestak. Galdetegia Interneten (<https://labureus/6AvIc>), edo paperezkoa herriaren etxean dago. Azken hori behin beteta, han bertan utz dezakete.

David Oroz Alonso alkateak azaldu digunez, etxebizitzaren inguruan dugu kezka. Bada ideia konpartitu bat herrian esaten duena gazteek nahiko luketela emantzipatu, baina ez dutela etxebizitza bat alokatzeko aukera errealik. Eskaera kopuru potentzialaz ideia egin nahi dugu".



Elkartasun topaketa Iturmendiko frontoian izanen da. Goian antolatzaileak.

## Baloiairen inguruko topaketa solidarioa

Ongi Etorri futbol topaketa solidarioa astelehenean jokatuko da Iturmendin. 56 gaztek eman dute izena

### ITURMENDI

Iturmendira bizitzera etorri diren adingabeetako batek proposatuta, Ongi Etorri futbol topaketa solidarioa ospatuko da heldu den astelehenean. Sakana Mankomunitateko Kirol eta Anitzartean kulturartekotasun zerbitzuek elkarrekin antolatu dute, Iturmendiko Udalaren, Sakana Harrera Haranaren (errefuxiatu eremuen berri ematen duen erakusketa jarriko du) eta Iturmendiko orientazio eta harrera zentroarekin batera. Azken horren arduraduna Ramiro Gonzalez da eta azaldu digunez 16 eta 18 urte arteko 25 adingabe daude zentroan. Haie-tako 19 magrebtarrak dira, 5 ghanarrak eta aljeriar bat. Gonzalezek argitu digunez, "Nafarroa zen halako zentroak soilik hiri-buruan zituen erkidego bakarra. Gainontzekoetan herrietan daude ere, komunitate guztiak ha-

rrera egin baitiezaioke adingabeei".

Ez dakite zenbat gaztek emanen duten izena, baina horrek markatuko du areto futboleko partiden iraupena. Denek denek kontra jokatuko dute. Taldeak mistoak izanen dira, herri desberdinetako jokalaria, neskak eta mutilak. Jakinaren gainean daude. Eta ikusiko dute neskek ere futboleko zeinen ongi egiten duten. Hezitzaile Eskolako ikasleak parte hartzeak dira.

Ondoren, Iturmendin bizi diren gazteek prestatutako auzatea izanen da, auzate anitza. Hau da, jatorri anitzeko jakiez gozatzeko aukera izanen da. Horrek elkarrekin egoteak eta hurbiltzeak errazten duelako. Goiza elkarrekin pasa eta gazte horiei benetako ongietorria egiteko aukera bikaina da. Aparte, Iturmendiri, bihotzez, eskerrak emateko aukera izanen da.

\* OIORRETARA GOAZ \*

URTARRILAREN 7AN  
BUELTATUKO GARA

10:00-12:00

EGUN ON

SAKANA

107.3 FM

beleixe



## Erdozia: "toponimoak mantentzea garrantzitsua da"

Toki-izenek haiek emandako mota askotako informazioa nabarmendu zuen liburu egileak aurkezpenean

ETXARRI ARANATZ

Euskarabideak Jose Luis Erdozia Mauleonen liburua argitaratu du: Etxarri Aranazko lekuzenak herrigune historikotik kanpo. Egungo toponimia ofiziala. Asteartean aurkeztu zuten. Liburuak 445 toki-izen ofizial biltzen ditu: 288 toponimo nagusi eta 157 eratorri. Gainera, izen ofizial bakoitzari honakoak ere eransten zaizkio: herrian erabiltako beste aldaera batzuk, izenak oinarri duen dokumentazioa, izenari buruzko iruzkina, informazio osagarria (bileretako ak-

tak esaterako) eta toponimo bakoitzaren GPS-kokapena. Azken horrek Nafarroako Gobernuaren web orrietan Etxarri Aranazko toki izenak erabiltzeko aukera emanen du.

Erdoziak hitza hartzean, lehenik eta behin, liburuaren izenburuko "herrigune historiko" aipamenari erreparatu zion. Gogoratu zuen 1.351n Karlos II.a erregeak Etxarri Aranatzen harrisia egiteko agindu zuela. Barruan hartu zituen Mundiñano, Maiza, Ubaldea eta Txikia auzoak. Harresi barruan zegoena hartu

du "herrigune historiko" gisa, "gaur egun herri barruak garai batean kanpoan zeuden toponimoak baitaude: Larrañeta, Sagarmineta..."

Liburuaren egileak nabarmendu zuenez, "toponimoak herri-memoriaren zati dira". Toki-izen batzuk deskriptiboak direla azaldu zuen (ur bi jotzen duen zubia edo Leñubeko huts biyurre). Edo gertaeren berri ematen du (basauntzak salto egin zueneko). Desagertutako herrien lekukotza ere ematen dute toki-izen batzuk (Maiza, Lazkoz, Artola). Toponimoek hizkuntza edo lexikoa osatzen dutela (monttei eta askoiye) gaineratu zuen.

Ikerlariak dokumentazioaren garrantzia nabarmendu zuen. Eta herrien arteko mugarritatze dokumentuak aipatuta, toki-izen asko galdu direla gaztigatu zuen.



Aurkezpenean 108 pertsona izan ziren.

"Baina askok 700 urte antzeko eutsi diote". Hala ere, dokumentazioa aztertzean "tentuz ibili behar da, ematen duena ez delako zuzena eta bahea pasa behar da". Herri euskaldunetan bezala, Etxarri Aranatzen ere toponimia

"bizi-bizi" dagoela nabarmendu zuen. "Baina memoria kolektiboan galtzen ari da. Adinekoek bada-kite, gazteek ez". Garai batean basoak bizibidea ematearekin lotu zuen alde hori. Eta toponimoak mantentzearen garrantzia azpimarratu zuen Erdoziak, "duela 200-300 urte orain bezala erabiltzen ziren. Baina ez badira erabiltzen ahaztu egingen dira, edo berriak sortu". Esaterako, bargako cantera dena Txuixoo da.

Liburua osatzerakoan zein grafia erabili sortutako zalantzak aipatu zituen eta liburua argitaratu bitartean egindako bidea gogora ekarri zuen, 2000 eta 2002 urteen artean Udaberri elkartearen egindako bileretatik hasita. Azkenik, Erdoziak jakinarazi zuenez, batetik, kale izendegia ofizialtzeko bidean daudela.



## Klinikaren aitortzak

Josefina Arregi klinikak, 25. urteurrena dela eta, langile beteranoenak, Vicente Madoz, Sakana Group eta Josefina Arregi klinikako lagunen elkarteak omendu zituen azaroaren 23an. Klinikaren urteurren ospakizunak larunbatean, 19:30ean, despedituko dira Trasteandoren kontzertuarekin. Informazio gehiagorako ikus 23. orrian.



## Aralar Mendi elkarteak obretan

Uharte Arakilgo Aralar Mendi elkartearen segurtasuna eta irisgarritasuna hobetzeko eta sukaldea handitzeko lanak egiten ari dira. Azaroaren hasieran hasi ziren eta ilbeltzean despeditu nahi dituzte lanak. Eraikuntza enpresa bat ari da haiek egiten. Baina 250 bazkideak auzolanean ari dira. Aurrena hustu egin zuten, altzari batzuk garbitu dituzte, ondoren sartzeko.

## Bakaikuko egutegia astelehenean aurrera eskuratzeko aukera

Bakaikuko argazkiekin ilustratutako kalendaryuaren seigarren edizioa astelehenean erosteko aukera izanen da. Hura ilustratzeko herriko 15 argazki bildu dituzte oraingoan. Egutegian bertan esker "berezia" azaltzen diete ekarpena egin dutenei, honakoei zehazki: Ainara Tabar, Alex Garmendia, Alfredo Zelaia, Amaia Fuste, Asier Lopez de Zubiria, Eduardo Urrestarazu, Egoitz Urriza, Erkuden Barandiaran, Erlantz Iburgurengoitia, Estitxu Leizeaga, Ion Itxaso, Irune Lopez de Zubiria, Jose Ignacio Urriza, Lander Irritzia, Maitane Ondarra, Nagore Lopez de Zubiria, Pedro Jose Zelaia eta Sonia Lizarragari.



## Azarokotearen 49 sarituak

Sakanako Dendarien, Ostalarien eta Zerbitzuen (SDOZE) elkarteak Azarokote kanpainarekin ibarreko establezimenduetan ohiko erosketak egitera animatzen ditu sakandarrak. Azaroan hala egin zuten eta sakandarrek elkarteak banatutako 20.000 txarteletako bat jaso zuten. SDOZEK. 20, 30 eta 50 euroko opari-txartelak oparitu zituen, 100 euroko 2 eta 300eko 1.







Eskola ezkerrean eta frontoia eskuinean, konpondu beharrekoak agerian dituela.

## Uhartearrak frontoirik gabe egonen dira bi hilabete

Konponketak egiteko itxi du udalak. Lanak otsailerako despedituko dira. 57.000 euroko aurrekontua dute

### UHARTE ARAKIL

Uharte Arakilgo Larrabieta pilotalekua 1988ko garagarrilaren 24an mustu zuten, duela 31 urteko San Juan festetan. Kirol azpiegitura erabilerarekin eta urteen joanarekin hondatuz joan da eta konponketak egin beharra ikusi du udalak. Txomin Uharte Baleztena alkateak azaldu digunez, "aldagela gaineko estalpea konponduko da, kanalizazioa hobetuz eta irteerak ongi jarritz. Hori da diruz lagunduta dagoen lanaren zatia". Horrekin batera, itajurak kenduko dituzte. Esaterako, frontisaren ondoan argia sartzen uzten zuten plakak hautsita daude eta haiek ordezkatuko dituzte. Horren ondoren pintatu egingen dute.

Uhartek gaineratu digunez, "teilatuko plaketako gomazko juntak eguzkiarekin erre egiten dira eta handik gero ura sartzen da. Teilatuko itxesurak kentzeko

zerbait egin behar da. Aurrekontua eskatu dugu eta ikusiko dugu zer egin daitekeen". Aurrekontuaren arabera lan horiek egiteko aukera izanen du udalak. Aurretik ere teilatuan konponketak egin ziren, Irañeta aldetik ura sartzen baitzen. Lanak astelehenean hasi ziren eta bi hilabetetan despedituta egon behar dira.

Uharte Arakilgo alkateak azaldu digunez, "eskolari eta kirol taldeei ahalik eta gutxien kalteztzeko erabaki da orain egitea. Lanak ahalik eta azkarren despeditzea nahi genuke". Izan ere, eskolak kiroldegi gisa erabiltzen du Larabieta pilotalekua. Gainera, pilota eskola, areto futbol taldeak eta uhartearrak dira Larrabietan aritzen direnak. Eurria egiten badu, Olentzeroren eta Mari Domingiren harrera ere tokiz aldatu beharko lukete uhartearrek.

## Etxeberriko Kontzejuak hilerriko pareta bat botako du.

Etxeberriko Kontzejuak urteak daramatza kanposantuko pareta batean mantentze lanak egiten. Basoan sartuta dago hilerria eta pareta hori mugitu eta zartatzen da. Baina erortzear dago. Javier Martija Etxarri kontzeju-buruak esan digunez pareta botatzea erabaki dute. Horretarako aurki makina bat alokatuko dute eta harekin botako dute pareta. On-

doren kanposantuaren zati hori hesiekin itxiko dute.

Martijak argitu digunez, "udaberri aldera, martxoan, pareta auzolanean jasoko dugu. Dugun materiala ikusiko du kisugile batek eta horren arabera pareta jasotzeko aurrekontua handiagoa edo txikiagoa izanen da". Kontzeju-etxeko teilatua berritu zuen Etxeberriko Kontzejuak joan den urtean eta horrek kontuetan zuloa sortu zuen, horregatik, auzolanean ariko dira hilerria konpontzeko.



## Frontoiak badu txapela

Egiarretako frontoia estaltzeko lanak aurrera doaz. Joan den astean egurrezko egitura jarri zuten eta aste honetan teilatua jartzeko lanei ekin diete. Berezia da Egiarretako frontoia, eskuin pareta izanen du, metakrilatozkoa. Azken lanak egitea besterik ez da

falta. Frontoi estaliarekin egiarretarrek aterpean kirola, festetako dantzaldiak, jolastu edo dena delakoa egin ahal izanen dute. Etxarrengo eta Etxeberriko frontoien ondoren estalita dagoen Arakilgo hirugarren pilotalekua izanen da Egiarretako frontoia.

# Haurrendako bi jolasparke berri aste honetan

Zumalakarregi plazako lanik handienak despeditu dituzte eta auzokideek dagoeneko erabil dezakete, indi-gaztain zuhaitzak jartzea besterik ez da falta. Hango jolas-parkean aritu dira jada haurrak. Foru plazakoa aste honetan jarri dute

### ALTSASU

Asteburuaz geroztik Zumalakarregi plaza ez dago hesiturik eta auzokideak hura erabiltzeko aukera dute. Bost hilabeteko lanen ondoren plazatik arkitektura-oztopo guztiak desagertu dira. Bakea kalearen parean zeuden zuhaitzak zoruaz jasotzen zutela eta haiek kendu dituzte eta plazaren hego-ekialdean metalezko pergola bat jarri dute eta hego mendebaldean, berriz, haurrendako jolas parkea. Udalak plazako 2.500 metro karratuak itxuraldatzeko 503.700,75 euro bideratuko ditu.

### 49 urte urte atzera

"Udalak han bizi diren auzokideekin laguntzarekin batera egindako zolatze lanen ondoren, Zabala, eta ederra gelditu da gure <txokoko> Tomas Zumalakarregi plaza". Hala idatzi zuen Belarrak Diario de Navarran 1970eko garagarrilaren 7an. Urte hartako ilbeltzaren 5ean argitaratu-



Zumalakarregi plaza berritua.

ez zuten kontribuzioa hainbat urtez ordaindu beharrik. Horrek udalak denerako diru-baliabiderik gabe utzi zuen. Udal ordezkarien eta 101 auzokideak ados jarri ziren plazari zoruaz jartzeko. Udal langileekin batera auzokideak auzolanean aritu ziren plazako zoruaz jartzen. Belarrak jakinarazi zuenez, aurrekontua 200.000 pezetakoa zen (1.202,02 euro). Aurretik, Intxostia zabalguneko etxebizitza kooperatibak herri-argiteria bere poltsikotik pagatu zuen.

### Foru plazan jolas-parkea

Altsasuko Udalak parte-hartze aurrekontuko 40.000 euro Foru plazan haurrendako jolas-parkea jartzeko bideratzea erabaki zuen irailaren 25ean. Asteartean hasi ziren jolas-parkea jartzeko lanak. Elizako erlojuaren azpian eta Jose Ulibarrenaren eskultura artean haurrendako bi jolas-jarri dituzte eta gunea hesi batekin inguratu dute.

tako albisteak kazetariak jakinarazi zuenez, "uste dut aurreneko aldia dela Altsasuko Udalak hirigintza lan bat egiten duena kontribuzio berezia ezarritz". Antza, Intxostiako zabalgunean eraiki ziren etxeek hainbat urtez

# Hirugarren gradua jasotzeko paperaren zain

Jakinazpen ofiziala eman eta baldintzak zehaztu behar ditu oraindik espetxeak bi presoak kalera atera ahal izateko. Altsasu Gurasoak eta Altsasukoak Aske herri plataformak "zuhurtzia eta errespetua" eskatu dute

## ALTSASU

Altsasuko auzikoen gurasoek asteartean jakin zuten Iñakik (3 urte eta erdiko zigorra, 588 egun preso) eta Aratzek (4 urte eta 2 hilabeteko zigorra, 588 egun preso) hirugarren gradua jasoko dutela. Bi presoek espetxeko zuzendaritzak ahoz esan die hori. Eta hala onartu zuten espetxeko iturriek asteartean. Baina hori baieztatzen duen inolako idatzirik ez dute jaso bi altsasuarrek. Ostiralean aterako direla zabaldu dute iturriek, baina, esan bezala, ez dute inolako baieztapenik. Estatuko espetxe administrazioak du azken hitza eta mantsoa izaten da halakoetan.

Espetxeetako tratamendu batzordeak dira presoek egoeraren azterketa egiten dutenak: zein gradutan sailkatu, zein tratamendu eman, zein jarduerara egin ditzakeen. Haiek dira presoek baimenak edo hirugarren gradua eman erabakitzen dutenak. Tratamendu batzordea, gutxienez, astean behin elkartzen da eta han hartzen dute erabakia. Zuzendaria, tratamendu zuzendariordeak, mediku zuzendariordea, Espetxe Zaintzako teknikaria, psikologoa, psikiatra, Ikas-Unitateko zuzendaria, zerbitzu koordinatzailea, hezitzailea eta zerbitzu buru batek osatzen dute.

Iñakik eta Aratzek zigorraren laurdena beteta dutenez, hirugarren gradua egiteko eskaera eginga zuten eta hori da espetxe zuzendaritzak onartu duena. Altsasuko auziagatik preso dauden Adur (8 urte eta erdiko zigorra, 1.132 egun preso), Jokin (8 urte eta erdiko zigorra, 1.132 egun preso), Oihan (9 urte eta erdiko zigorra, 1.132 egun preso) baimenak eskatzeko aukera dute zigorraren laurdena beteta dutelako. Zigorraren laurdena betetzeko 97 egun falta zaizkie Jon Anderri eta Juleni (7 urte eta erdiko zigorbana, 588 egun preso). Baina kartzelatik ateratzeko baimenak



Nekane Ortigosa ETBri erantzun ondoren, asteazkenean.

## GURASOEK ELKARTASUNA AZALDU DIETEN GUZTIEI ESKER ONA ADIERAZI DIETE

ematea tratamendu batzordearen borondatearen arabera da. Eta, normalean, zigorraren erdia bete arte ez dituzte ematen. Zortzigarren auzipetua, Ainara, urte eta erdiko espetxe zigorra jaso zuen eta behin behinean aske dago.

### Gurasoak eta plataformak

Atzera ere hedabideen zurrumbilo baten erdian opatu dute euren buruak Altsasu Gurasoak taldeko kideak eta Altsasukoak Aske herri plataformako kideak. Biek prentsa ohar bateratua zabaldu zuten atzo bi presoek gradua aldaketaren inguruko iritzia emateko. Aldaketa hori "kartzelako ohiko legearen ezarpena auzipetuek, euren senideek eta Altsasuko herriak duela hiru urte baino gehiago pairatzen dugun bide injustuaren baitan eta bidegabekeria oinarritu

zigorren testuinguruan kokatzen dugu".

Guraso eta plataformako kideei albisteak "poza, hobe esan oinazea arintzen du, baina gauden egoeran jarraitzen dugun bitartean, injustizia gero eta handiago da". Azaldu dutenez, "hirugarren graduak, lanegunetan kartzelara lo egitera bueltatu behar dutela suposatzen du. Berraz, ez da askatasuna eta gainerako lagunek espetxe barruan jarraitzen dute zigorra betetzen". Altsasu Gurasoak eta Altsasukoak Aske herri plataformak ziurtatu dutenez, "injustizia hau salatzen jarraituko dugu ahal dugun heinean, eta berandu baino lehen ikusi nahi ditugu gure gazteak Altsasun heien bizitzari berriz heltzen".

Bi eragileek esan dutenez, "egokitu zaigun bide luze honetan zehar, batzuetan zurrumurruek edota bestetan nolana hiko informazioak ez dira batere lagungarriak izan Altsasuko gazteen askatasuna lortzeko eta lege bidegabekeria hau geldiarazteko". Eta "halako bidegabekeriarik ez Altsasun ez beste inon berriz gerta ez dadin lanean jarraitzeko konpromisoa" berretsi dute.



Sareko kideak Iruñeko manifestazioa aurkeztu zuteneko. @SARE\_HERRITARRA

## Sarek presoek aldeko manifestazioetara deitu du

Larunbatean, 18:00etan, Iruñeko autobus geltoki zaharrean. Hilaren 27an, 19:00etan, Etxarri Aranatzan

## SAKANA

Sare Herriarrak "salbuespeneko espetxe politika indargabetzeko ordua" dela adierazten duten aldarrikapenez bete nahi dituzte Eguberriak. Baita "elkarbizitan eta benetako bakean urratsak emateko presoek korapiloa askatzea beharrezkoa dela azpimarratu" ere. Eguberriak "sendiarekin eta lagunekin batzeko egunak izaten diren hauek, ehunka eta milaka kilometrotara dauden presoek hutsunea areagotzea dakarte".

Sareko kideek nabarmendu dutenez, "hutsune horri, gainera,

salbuespeneko errealitateari egin behar diote aurre". Izan ere, Nafarroako 36 presoek (sei etxarriar) % 80 lehenengo graduan dago, espetxean dagoen erregimenik gogorrean. 35 urrunduk Espainiako eta Frantziako estatuetan, 1 espetxe arinduan (etxean preso). Horietatik, lau larriki gaixodaude (tartean Etxarri Aranatzko Jon Gurutz Maiza Artola), lau emakumezko ak dira, bizi baldintza okerragoetan. Ama, aita edo biak espetxean dituzten haurrak 11 dira (Motxiladun umeak) eta horietako bat espetxean dago bere amarekin.

## Bakegintza feministaren mendeurrenaren berri emateko

Bakearen eta Askatasunaren aldeko Emakumeen Nazioarteko Ligari (WILPF) buruzko erakusketa lortian

## ALTSASU

Nafarroako Gobernuak Bakearen eta Askatasunaren aldeko Emakumeen Nazioarteko Ligari (WILPF) bakearen aldeko lan konpromisoa aitortu zion 2018an. Orduan sortutako lan-harremaren ondorio da "WILPF: bakegintza feministaren ehun urte" erakusketaren berrargitalpena. Erakusketa Nafarroako hainbat ikastetxe eta herrietan barna ibilbidea egiten ari da eta urteko azken geldialdia Altsasun egingo du. Bide horretan "gizarte bakesuago, etikoago eta justuago

baten eraikuntzan esperantza mezua" zabaldu nahi du.

Nafarroako Gobernuak erakusketa horrekin bakearen aldeko erakunde zaharrenetako bat den WILPF ezagutarazi nahi du, batez ere emakumeek osatua dena, eta oraindik ere bizi-bizirik jarraitzen duena. Emakume horiek, bakea josten 100 urte baino gehiago daramatzatenak, "bakea gure planetako gune guztietan posible izan dadin saiatzeko dira, baina, bereziki, gerra eta gatazka eremuetan egiten dute lan".



## Udalak ideia bilketa eginen du heldu den urtean

2016an jasotako hiru ideia gauzatu ditu udalak. Asmo berarekin deialdi berria eginen du 2020an

ZIORDIA

Ziordiko Udalak parte-hartze aurrekontuen prozesua martxan jarri zuen 2016an. Ziordiarrek proposatutako ideiak jaso eta udal aurrekontuak ahalbidetzen zuen heinean hiru ideia nagusiak

gauzatu dituzte. Ideia horiek bozka bidez erabaki ziren. 2017an Errekakartea elkarte azpiko lokala konpondu eta erabilera anitzeko gela sortu zuen. Joan den urtean, berriz, gimnasioa konpondu zen eta, azkenik, aur-

ten haurrendako jolas parkea egin du. Olatz Irizar Martinez alkateak azaldu digunez, "ziurrenik 2020an berriro ideia bilketa bat martxan jarriko dugu". Beraz, berriro ere, "proposatzen diren ideiak aztertuko ditugu eta bozka gehien dutenak egiten saiatuko gara".

### Haurren jolas parkea

Agorrilaz geroztik erabilgarri dago Ziordiko haurrendako jolas parke berria, elizaren ondoan dagoena. Udaleko langilea ardu-



Haurrak jolas parke berrian. ARTXIBOA

ratu da harrizko aterpea eta haren teilatua egiteaz. Batez ere, eguraldi txarra dagoenean haurrek erabili dezaketen aterpea. Haren parean gomazko zoru gainean zabuak, txirristak eta kulunkak daude. Hori guztia rokodromoarekin eta beste joko pare batekin osatuko da.

Bestalde, Toki Eder frontoiko lan handienak despedituta daude. Teilatua, sabai aizuna kendu eta argiteria berritzeko Ziordiko Udalak 168.129,43 euroko inbertsioa egin du.

## "Grebarekin bizitza erdigunean jarri nahi dugu"

ELA sindikatuak bere nazio kontseilua bildu zuen Altsasun atzo. Mitxel Lakuntzak, ELAko idazkari nagusiak azaldu zigunez, ilbeltzaren 30erako deitutako greba orokorra lantzerantz elkartu ziren. Lakuntzak esan zigunez, "tamalez ez dugu esfortzu handirik egin beharrik grebara zergatik joaten garen esateko: azken hilabeteetan pentsiodunak kalera atera dira euren pentsioak pobretzen ari direla esateko; mugimendu feminista kalean egon da, besteak beste, soldata arrakala erdigunean jartzen eta azken hilabeteetan hainbat lantokietan grebak izaten ari dira ikusten dugulako bere garaian une baterako saldu nahi ziguten prekarietatea eremu guztietara hedatu delako, bai gizartean, bai lan munduan". Lakuntzak azpimarratu zuenez, "greba guretako ezinbesteko tresna bat da. Konplexurik gabe diogu: politizatze-ko greba bat da. Dena politika da: pentsioak, soldata arrakala, lan baldintzak...".

## Doneztebe patroia ospatuko dute lhabarren ostegunean

Hilaren 26an ospatuko dute. Herriko patroia da Doneztebe eta, horregatik, herri bazkarian elkartuko dira kontzeju-etxeko bajaran, 13:00etan haurrak eta 14:30ean helduak. Haurrendako tailerrak 14:30etik 18:00etara izanen dira. Bitartean, 14:30ean, helduak mahaira bazkaltzera eseriko dira. Arratsaldean kantuan eta dantzari ariko dira.

ots 1 feb  
**OREKA TX**

urt 25 ene  
**DUBLINNES**  
ADOS TEATRO

mar 21 mar  
**GAUEKOAK**  
KUKAI DANTZA

api 18 abr  
**ORQUESTA DE MALABARES**  
CIA. POSTACATRO & HAIZE BERRIAK

api 4 abr  
**YA ES LA HORA**  
ANTEEKI TAILERRA-TALLER TEATRO

mar 28 mar  
**JUNTOS**  
TXALO PRODUCCIONES

mar 22 mar  
**ETXERIK TXIKIENA**  
JASLEKU TEATRO

urt 19 ene  
**BABIAN ZAUDE!**  
LA LLAVE MAESTRA PRODUCCIONES

ots 22 feb  
**LUCES, MÚSICA, ¡ACCIÓN!**  
SUKAI

mar 29 mar  
**PEQUEÑO BIG BLUE**  
PANSCHAP

mai 16 may  
**ROCK CIRK**  
ROLABOLA

**ortia**  
kultur gunea orkestra kulturak  
iortiakultura.com

abonamendu eta sarrera salmenta / venta de abonos y entradas: abendua 23 diciembre  
abonamendua osatzen duten ikuskizunetarako sarrera solteak/venta entradas sueltas a los espectáculos incluidos en abono: urtarrila 7 enero



## Olentzero eta Maridomingiren etorrera

Herria	Ordua	Tokia
Irurtzun	18:30	Plazaolako zubia.
Etxeberri	18:00	(Igandean) Menditik plazara jaitsiko da. Harrera eginen diote Txantreako abesbatzak, herriko txistulariek eta Irurtzongo zanpantzar txikiak. Kalejiraren ondoren, elizako estalopean Olentzerok haurren gutunak jasoko ditu. Frontoian otamena izanen da eta, despeditzeko, lagun ikustezinaren opariak banatuko dira.
Etxarren	16:00	Urritzolako bidetik etorriko da ikazkina. Gaitariekin ongi etorria, kalejira eginen dute. Frontoian opariak banatuko dira. Txoripanasen koreografia, txokolate-jana eta otamena izanen dira.
Satrustegi-Hiriberri	17:30	Olentzero Andiatik jaitsi bitartean, Satrustegiko elkartean txokolate-jana, ikazkinari ongietorria, herrian barnako kalejira, 19:30ean Hiriberrira joan eta ibilbidea auzatearekin despedituko dute Txitera elkartean.
Ihabar	18:30	Autobia azpiko zubian.
Irañeta	18:00	Andia aldetik etortzen den ikazkina autobus geltoki inguruan agertuko da.
Uharte Arakil	18:00	Martigarrotik etorriko dira ikazkina eta Mari Domingi. Uhartearrez lagunduta herrian barnako kalejira eginen dute, plazan bukatzeko.
Arruazu	19:30	Arnazko bidetik etorriko da eta herrian barna kalejira eginen dute, elkartean bukatzeko. Opari banaketa, gaztainak, ardoa eta musika izanen dira.
Lakuntza	18:00	Plazan.
Arbizu	18:00	Plazan bildu, baso aldera abiatu, harrera egin, kalejira Argi Bidea elkartean bukatuko da.
Unanu	18:00	Beriaingo bidetik jaitsi, han harrera egin, herrian barnako kalejira eta akaberen txokolate-jana edo goxokiak banatuko dira, plazan edo elkartean. Haurrak kantu-eskean ariko dira aurretik.
Dorrao	19:00	Hostogorritik jaitsiko da ikazkina. Plazan haurren kanta, goxoki banaketa, elkartean merendua.
Lizarraga	18:00	Igande iluntzean Mari Domingik gutunak jasoko ditu eta txokolate-jana izanen da. Olentzero Dorrao aldetik iritsiko da. Harekin batera kantuz eta diru bilketan ariko dira. Etxe bakoitzak bere kandila aterako du, bidea argitzeko.
Etxarri Aranatz	17:30	Txokolate-janarekin, Aldapasoro auzoan eginen zaie harrera Olentzerori eta Mari Domingiri. Ondorengo kalejira estalopean bukatuko da.
Bakaiku	18:00	Aiztin bat eginen dute Olentzero eta Mari Domingirekin, ondoren herrian barnako kalejira, plazan bukatzeko. Astelehenean, 18:00etan, Eguberri kanten entsegu auzoan.
Iturmendi	19:00	Menditik etorri, herrian barnako kalejira egin eta frontoian bukatu. Sasaki baten zozketa, txokolate-jana, ardo beroa banatuko dira.
Urdiain	18:00	Portuko kaletatik etorri eta harrera eginen diote urdiaindarrek. Herrian barna kalejira egin ondoren, plazan dantza eginen diote. Ikazkinaren ibilbidea elizan despedituko da.
Altsasu	11:15	Mari Domingi gaztetxetik kultur guneko zabalgunerantz abiatuko da, behin iritsita, harrera eginen diote eta hamabitakoa Kukuerreka elkartean izanen da.
	17:45	San Juan ermitan. Zumalakarregin geldialdia, Foru plazan bukatzeko.
Olatzagutia	18:30	Igandean, 18:00etan, Lamiatur ludotekan izanen da. Olentzero eta Mari Domingi Belengo iturritik iritsiko dira, kalejira frontoian bukatzeko.
Ziordia	18:00	Menditik jaitsi eta kalejira eginen da gaztetxean bukatuko dena.



Herria	Ordua	Tokia
Irurtzun	18:30	Bi Ahizpe kaleko beheko aldetik abiatuko da. Herrian barna ibiliko da segizioa elizan bukatzeko. Han erregei harrera egin eta gero haurrak hurbilduko zaizkie.
Uharte Arakil	18:00	Zerradoatik abiatuko da segizioa elizan bukatzeko.
Lakuntza	18:30	Ibai aldetik iritsiko da erregeen segizioa, herrian barna ibiliko dira eta elizako aterpean Jesus gurtuko da eta eliza barruan haurrei opariak banatuko dizkiete.
Arbizu	18:00	Udaletxetik abiatuko da errege segizioaren ibilbidea, elizan bukatuko da eta han haurrei opariak banatuko dizkiete.
Ergoiena	18:00	Lizarragako elizatik abiatuko da segizioa eta Dorraotik eta Unanutik pasako da. Geldialdietan jatekoak eskainiko dira. Herrietan ere afariak izanen dira. Lizarragarako txartelak 29an elkartean eskuratu daitezke.
Etxarri Aranatz	19:00	Errege segizioa elizatik abiatuko da kalejira estalopean bukatzeko
Bakaiku	18:30	Beheko basotik etorriko da errege segizioa. Kalejira egin ondoren elizan banatuko dira opariak.
Iturmendi	19:00	Beheko basotik etorri, herrian barna kalejira eginen dute eta mojen etxean eta adinduenean geldialdiak eginen dituzte. Erregeek elizan Jesus gurtuko dute eta frontoian haurrendako goxokiak banatu bukatuko da erregeen bisita.
Altsasu	19:00	Farejoleen errege zozketa Foru plazan 17:30ean. Sakana LH Institututik abiatu. Geldialdiak Zumalakarregi, Foru eta Zubeztia plazetan.
Olatzagutia	18:00	Erregeen mandatariak ilbeltzaren 3an, 18:00etan, ludotekan gutunak jasoko dituzte. Errege segizioak autobus geltokitik abiatuko du bere kalejira frontoian bukatzeko.
Ziordia	19:00	Texeria kaletik abiatuko da errege segizioa, herrian barna ibili ondoren, elizara joko dute. Han haurrei goxokiak banatuko dizkiete. Despeditzeko, txokolate-jana izanen da.

## Ekialdeko erregeen etorrera





## Ezkurdia- Martijak bi puntu eta hiru Jaka-Zabaletak

**PILOTA** Jaka-Zabaletak Olaizola-Urruti dituzte aurkari eta Ezkurdia-Martijak Artola-Imaz

Binakako Pilota Txapelketako 4. jardunaldian partida ikusgarria eskaini zuten Ezkurdia-Martijak eta Bengoetxea-Mariezurrenak Urretxun. 13-ren berdinketaren ondoren, Bengoetxearen arriskuak jabetuta, Ezkurdia gehiago sartu zen partidaren, eta Martija bikainaren laguntzarekin –partidako onena izan zen–, sakan-darrek pausua eman zuten aurrera eta 19 eta 22 irabazi zuten.

Igandean Eibarren Jakak eta Zabaletak Laso eta Albisuren kontra jokatu zuen partidaren akatsak izan ziren nagusi. 21era berdinduta, azken tantoan Lasok txokora egindako errematea ezin izan zuten behar bezala erantzun, eta 21 eta 22 galdu zuten Jakak eta Zabaletak. Hala ere, txapelketan buruan jarraitzen dute (3 puntu). Puntu berberak dituzte Artolak eta Imazek. Bina puntu dituzte Ezkurdia-Martijak, Laso-Albisuk, Altuna-Ladis Galarzak eta Irribarria-Rezustak eta bana Bengoetxea-Mariezurrenak eta Olaizola-Urrutikoetxeak.

Binakako 5. jardunaldian, gaur, Irunen, Jakak eta Zabaletak Olaizola II.a-Urrutikoetxea izanen dituzte aurkari (20:00, ETB1), eta igandean, Arrasaten, Ezkurdia eta Martijak Artola eta Imaz izanen dituzte aurkari (17:00, ETB1).

## AIZKORA Goizeder Beltza laugarren Euskal Herriko 3. mailakoan

Larunbatean Euskal Herriko 3. mailako Aizkora Txapelketako finala jokatu zen Otxandion. Txapelduna Eneko Saralegi izan zen (13:57), Ioritz Gisasolaren (14:29) eta Txomin Amundarainen (15:09) aurretik. Goizeder Beltza etxarriarra laugarrena sailkatu zen (15:39) eta atzetik Luis Maria Polanco (16:20) eta Julen Aranberri (16:36).

# "Txakurkrosean sortzen den lotura ikusgarria da"

**IGOR ARTIEDA GALDEANO** TXAKURKROSEKO KORRIKALARIA

**TXAKURKROSA** Igandean III. Etxarri Aranazko Txakurkrosa jokatu da 9:00etan Etxarriko kanpinuean. Bertara gonbidatu gaitu antolakuntzan dabilen Igor Artiedak

**Maidar Betelu Ganboa** ETXARRI A.

Txakurrari lotuta korrika egitea. Hori da, modu xumean azalduta, Txakurkrosa. Baina hori baino askoz ere gehiago da. Igandean ikusteko aukera izango dugu Triku Trailek eta Euskanikross taldeak Xalok zentroaren babesarekin antolatutako III. Etxarri Aranazko Txakurkrosean.

**Oraindik Sakanan nobedadea da Txakurkrosa?**

Sakanan aspalditik dago txakurkrosean aritzen dena, baina ez asko. Egun, jende askok txakurrak ditu, korrika egiten du mendian baina oraindik txakurrari lotuta ez du korrika egiten. Ez da salto hori ematera ausartzen.

**Salto hori ematea kosta egiten da?**

Benoa... ezjakintasuna, informazio falta... izan daiteke horren arrazoa, baina behin ikusi edo probatzen duzula, honek harra-patzen zaitu eta asko gainera; oso polita da.

**Txakurrik gabe edo txakurrari lotuta korrika egitean zein da alde nagusia?**

Abiadura, bereziki. Txakurraren arabera, kilometroaren abiadura minutu bat edo gehiagoan jaitsi dezakezu lotu gabe edo lotuta egitearekin. Abiadura ikusgarriak izaten dira lotuta egiten denean. Eta horretaz aparte, txakurkrosa azkenean talde lan bat da, pilotan binaka jolastea bezala. Ehuneko hein handi batean txakurrarena da meritua, abiaduraren aldetik berak esfortzu handia egiten duelako. Eta gero, aginduak nola eman eta jabearen eta txakurraren arteko elkar ulertzeak asko egiten du; hainbat faktore daude talde lan hori hobetu dezaketenenak.

**Lasterketetan parte hartzen duten txakurrek zein adin dute?**

Normalean txakurrek urte bat izan arte ezin dute korrikarik egin halako lasterketan, eta muga edo topea 10 urte dira. Arrazaren arabera, 8 urtetik aurrera euren maila jaitzen doa. Nireak, Lunak,



Igor Artieda eta Luna abenduaren 8an Eibarko proban. UTZITAKOA

## "TXAKURKROSEK XARMA BEREZIA DUTE; IGANDEAN ETXARRIRA GONBIDATZEN ZAITUZTEGU"

4 urte ditu, baina nik garbi dut, ikusten dudanean bere maila jaitzen ari dela edo lasterketan egiten duenarekin sufritzen hasten dela, probetatik aterako dut. **Igandean jokatu da proba, Etxarriko kanpinuean. Ibilbidean aldatarik egin duzue?**

Ez dugu aldaketarik egin jendea-ri asko gustatzen zaiolako. Euskal Herrian geografiatik hau bezalako ibilbide laurik ez dago; denak oso maldatsuak dira, desnibel askorekin, eta gurean, lauago izatean, abiadura handiagoak hartzen dira eta txakurkrosarako proposagoa da besteak baino. Ez da luzeegia, oso eroso da, entrenigarria, erreboltak, putzuak, errekek, gorabeherak... denetarik du. 6 km dira. Kanpinetik aterata, ibilbidea Polvora aldera doa, eta Beheko Basotik, Artxaneko pinudiaren atzealdetik, Haritzen ibilbidea gurutzatzen du eta handik kanpinera

do, Haritzen ibilbidetik. 70 metroko desnibela du, eta paisaia, ederra.

**Hiru modalitate daude.**

Txakurkrosa, txakurrari lotuta korrika egitea; patina, kirolaria bizikleta normal baten tamainako gurpilak dituen patin moduko batean doa, eta txakur bat edo gehienetan bi patinari tiraka; eta bikejoringa, parte-hartzailea bizikletan do eta txakurra hari lotuta. Segurtasunagatik, txakurraren artean tentsioa izaten delako, ezinezkoa da denak batera ateratzea. Hortaz, txirrindulan eta patinean doazenak banaka aterako dira elkarren arteko minutu bateko tartearrekin. Eta Txakurkrosean parte hartzen dutenak aurten hiruak aterako dira. Aurreko urtetan bosnaka atera ziren, baina aurten hiruak, hobetze aldera.

**Izan ere, proba hauetan txakurren segurtasuna eta hobe beharra bermatzea da garrantzitsuena. Hori ziurtatzeko egiten al dituzue albaitarien kontrolak?**

Bai, proba hasi baino lehen albaitariak txakurrak artatzen dituzte. Txakurkrosekoak lasterketa motzak baina esplosiboak

dira, txakurren nahikoa esfortzua, eta horretarako baldintza egokitan egon beharko dute. Hankak begiratzen zaizkie, zauririk izan ez ditzaten, bihotza auskultatu, txerto guztiak dituztela ziurtatu... Goizeko 9:00etan lehendabiziko txirrindularia aterako da, segidan patinekoak, guztiak jarraian, banaka. Eta goizeko 10:30ean txakurkroseko lehen parte-hartzaileak abiatuko dira. Beraz, 8:00etatik 10:30etara lanean ariko dira albaitariak.

**Zenbat parte-hartzaile espero dituzte?**

Iaz 104 pertsona izan ziren, baina batzuk diziplina bat baino gehiagotan aritu ziren eta 111 partaide inguru izan ziren guztira. Kopurua gaituzte dugu eta aurten 115-120 inguru egongo gara, tartean bi sakandar. Juan Bautista Urtasun urdiaindarra patinean ariko da; urte asko daramatza eta beterrano handia da. Eta Igor Lanz satrustegierra bikejoringean ariko da.

**Zein da proba ikusteko gomendatzen diguzun tokia?**

Ibilbidearen bigarren erdian. Haritz Zaharren Ibilbidean badago haritz bat zulo handi bat duena, eta inguru horretan jarririk nintzateke. Eta hori baino lehenago badago gunea bat gorabehera eta errebueltaz betetakoa. Bertaraino hurbiltzea erraza da. **Xarma berezia duen lasterketa izango da. Abiadura ikusgarria hartzen omen dute.**

Izugarria! Iaz uste dut denborarik onena patinean aritu zenak egin zuela eta 12 minutu eta segundo gutxi batzuetan egin zuela buelta. Eta hori ibilbide guztia lokaztuta zegoela kontuan hartuta. Eta Txakurkrosean irabazi zuenak 19 minutu eta 4 segundotan egin zuen lana.

**Jendea joaten al da proba ikustera?**

Giroa eta mugimendua egoten da Etxarriko Kanpinuean, polita izaten da. Baina abendua da eta eguraldiak ikusleengan eragina du. Guretako hotza da eguraldi aproposena; zenbat eta hotzagoa hobe, txakurren. Euren berroa ez da ona.

**Sakandarrak gonbidatu al dituzte?**

Giroa oso polita eta berezia da. Ikusgarria da ikustea txakur horiek nola egiten duten tira, eta txakurraren eta pertsonaren artean sortzen den lotura hori zein polita den ikustea. Animatu daitezela sakandarrak, pozik joango dira eta etxera ikusten dutenarekin.



# Mikel Uncilla eta Nahia Imaz txapeldun Urdiainen

**TXIRRINDULARITZA** Bi txirrindulari sakandarrek Urdaingo Ziklo-krosa-Benigno Mendia "Kani" Memoriala irabazi zuten kadeteen mailan. Juniorren mailan Adrian Losarcos eta Edurne Izkue gailendu ziren

Bezperetan sekulako euritea bota eta gero, larunbatean lehor eta eguzkitsu esnatu zen. Horrela, primerako eguraldiarekin jokatu zen Burunda Txirrindularitza Taldeak hainbat babesle eta laguntzailerekin antolatutako I. Urdaingo Ziklo-krosa-Benigno Mendia "Kani" Memoriala. Burundak antolatutako lehenengo ziklo-kros lasterketa zenez –aurretik Urdiainen eta Sakanan izan dira ziklo-kros probak, baina ez Burundak antolatutakoak–, aurtien soilik kadeteen eta juniorren mailako lasterketa antolatzera animatu ziren burundarrak, eta guztira 80 txirrindulari inguruk hartu zuten parte. Proba jarraitzera ikusle ugari animatu zen eta giro oso polita egon zen Urdiainen.

## Lohian gustura

Goiztiarrenak kadete mailakoak izan ziren. Urdaingo Bentatik atera, eta Aitziber futbol zelaia ardatza hartuta ibilbide ederra izan zuten aurretik. Txirrindularien pasen ondoren, ibilbidea geroz eta lokaztuago eta konplikatuz bilakatu zen, baina faboritoak sakandarrak ziren eta ez zuten huts egin.

Gizonezkoetan Burundako Quesos Albeniz taldeko Mikel Uncilla Aldasoro izan zen txapeldun handia (28:38) eta emakumezkoetan Nafarroa-Ermitagaña taldean dabilen Nahia Imaz Perezaltsasuarra (25:54). Uncillak 24 segundo atera zizkion Goierriko Kirol Elkarte Gari Ugarteri (29:02) eta El Proex taldeko Gorka Corres izan zen hirugarrena (29:33). Quesos Albeniz taldeko Mikel Regil 11.a sailkatu zen (31:40). Nahia Imaz, aldiz, erraz gailendu zen. Altsasuarrak minutu bat eta 6 segundo atera zizkion Arabarrak taldeko Amaia Lopez de Uralderi (27:00) eta Seguros Bilbao taldeko Nahia Arana hirugarrena sailkatu zen (28:11).



Kadeteen mailan Mikel Uncillak eta Nahia Imazek ez zuten areririk izan.

Juniorrek eguerdian ekin zioten lanari eta euren kasuan askoz ere estuagoa izan zen lasterketa. El Caserio-Valsay taldeko Adrian Losarcosek eta Electroalavesa-Etorki taldeko Unai Unzagak lehia oso estua izan zuten eta azkenean Losarcos gailendu zen (42:47), Unzagari helmugan 6 segundo aterata (42:53). Hirugarrena Gaurisa taldeko Julen Aranzabal izan zen (43:16).

Sakandarrei dagokienez, azkarrena Quesos Albeniz taldeko Iker Mintegi izan zen, 9. postuan (46:35). Sakana Group-Arlar taldeko Jon Erdozia 15. iritsi zen helmugara (48:13), Quesos Albenizko Jon Chamorro urdiaindarra 17. (49:25) eta bere taldekide Oihan Etxeberria 24. (44:54). Eta emakumezkoetan Grupo Elektrako Edurne Izkuek irabazi zuen (44:52), Murias-Limousineko Lur



Iker Mintegi eta Jon Erdozia ahalegin betean.

## Espainiako Kopa: Arrieta 3. eta Tadeo 10.

Igandean XXIII. Valentziako Nazioarteko Ziklo-krosa jokatu zen, Espainiako Koparako puntuagarria zen 6. eta azken proba. Sakana Group-Arlar taldeko Igor Arrieta uhartearrak sekulako erakustaldia eman zuen eta juniorren lasterketa irabazi zuen (39:01), nagusitasun osoz. Bezperan Xativako lasterketa irabaztetik zetorren Arrieta, eta Espainiako Kopan hirugarrena sailkatu da, Kopako 6 probetatik hirutan aritu eta hiru horiek irabazi eta gero.

Kadeteen mailan bere taldekide Aimar Tadeok ere lan ikusgarria egin zuen. Valentziako Ziklo-krosean 11 txirrindulari iritsi ziren batera helmugara, tartean Aimar, eta esprintean erabaki zen proba. Lakuntzarra 11.a izan zen, irabazlearen denbora berean, eta bezperan, Xativan, 5. sailkatu zen. Espainiako Ziklo-Kros Kopan kadeteen 10. postuan sailkatu da.

Zufiriaren (45:15) eta Arabarra-keko Maite Anuncibairen (52:34) aurretik.



Oihan Etxeberria urdiaindarra.

## TXIRRINDULARITZA Vuelta Sakana zeharkatuko du

Asteartean 2020ko 75. Vuelta aurkeztu zuten Madrilen eta zurumurrak konfirmatu ziren: Vuelta Sakanatik pasako da. Abuztuaren 19an izango da, Vuel-tako 5. etapan. Etapa Iruñean hasiko da, eta Lizarrara heldu ondoren Urbasako portua igo eta Olaztira jaitsiko dira txirrindulariak, Sakana zeharkatu eta Uhartre Arakilgo pistatik Aralar-ko San Migelera igotzeko; ondoren Lekunberriraino jaitsiko dira (151 km).

Gogoratu beharra dago 2014ko irailaren 3an Espainiako Vuel-tako 11. etapa Aralarko San Migel santutegian despeditu zela. Milaka pertsona bildu ziren Fabio Aruk irabazitako etapa ikusgarria jarraitzera, baina askoren jokabidea ez zen behar bezalakoa izan eta Uhartre Arakilgo pista eta santutegiaren inguruak zaborrez beteta utzi zituzten. Antolakuntza handik bi egunera hasi zen garbiketa lanak egiten eta horrek haserrea piztu zuen.



Imanol Erbiti sariarekin. UTZITAKOA

## TXIRRINDULARITZA Imanol Erbitik Gregarious saria jaso du

Gregarious sariketarako norbanakoek egiten duten esfortzua, konpromisoa, elkartasuna eta leialtasuna saritzen du. Hiriberriko Imanol Erbiti izan zen saridunetako bat, "nazioarteko tropelean erreferentzia izateagatik, kapitain bikaina eta bere liderrendako ezinbesteko txirrindularia" izateagatik. Asteazkenean La Resistencian elkarriketatu zuen Broncanok Erbiti.



## FUTBOL PREFERENTEA

12. JARDUNALDIKO EMAITZAK	
Lagun Artea - Mutilbera	2-0
Ardoi B - Etxarri Aranatz	2-3

SAILKAPENA	
PREFERENTEKO 1. MULTZOA	
1 Arrotxapea	22
3 Lakuntzako Lagun Artea	21
13 Etxarri Aranatz	14

HURRENGO JARDUNALDIA	
LARUNBATEAN	
16:00 Amigo - Lagun Artea (Amigo)	
IGANDEAN	
15:45 Etxarri - Beti Casedano (S. Donato)	

**Jardunaldi borobila gure taldeendako** Lagun Artea eta Mutilbera parez pare ibili ziren, baina 2. zatian Lagunek eritimoa bizkortu zuen eta Davilak eta Zubiriak sartutako golei esker 3 puntuak Lakuntzan geratu ziren. Etxarri eta Zizurrek jokutako partidari Ardoi aurreratu zen, baina Geovannyk bi gol sartu zituen eta Etxarri jarri zen aurrean. Zizurkoek bina berdindu zuten, baina azken minutuan Ardoikoen akatsa probestuz Unai garaiaren gola egin zuen.

## FUTBOL ERREGIONALA

12. JARDUNALDIKO EMAITZAK	
Zizur - Altsasu	4-3

SAILKAPENA	
ERREGIONAL MAILAKO 2. MULTZOA	
1 Universidad de Navarra	28
10 Altsasu	10
HURRENGO JARDUNALDIA	
IGANDEAN	
10:00 Altsasu - Amaia (Dantzaleku)	

**Altsasu Zizurrik punturik gabe** Zizurrek mustu zuen markagailua, baina Imanolek eta Mikelek 1 eta 2 aurreratu zuten Altsasu. Zizurrek bina berdindu zuen eta hirugarrenez aurreratu zen Altsasu, baina 2 golekin garaipena Zizurren geratu zen.

## EMAKUMEEN ERREG.

15. JARDUNALDIKO EMAITZAK	
Altsasu - Mutilbera	0-1

SAILKAPENA	
EMAK. ERREGIONALEKO 1. MULTZOA	
1 Castejon	40
7 Altsasu	24
HURRENGO JARDUNALDIA	
ZEHAZTU GABEKO DATAN	
Z/G Peña Sport - Altsasu (Tafalla)	

**Ilbeltzera arte atseden** Altsasuk ezin izan zuen sailkapenean 2. den Mutilbera taldea mendean hartu, baina 7. postuan dago sailkapenean.

## Ziordiko tomeo solidarioan 10 talde ariko dira Zuriñeren alde

## ARETO FUTBOLA

Abenduaren 29an jokatuko da eta zozketa erraldoia egingo dute

Eguberritako Areto Futbol Torneo solidarioa antolatu dute Ziordian abenduaren 29an. Zizurren bizi den Zuriñek Rett sindromea du eta gaixotasunari aurre egiteko makina bat tratamendu behar ditu, eta familia honi ahalik eta laguntza gehien ematea da helburua.

10 taldek eman dute izena eta bakoitzak 30 euro ordaindu ditu, Zuriñeren alde. Bost talde nafarrak dira: Bayer de los Caidos (Altsasu) eta Peña glande, LSN, Amonal eta melocoton caliente, Zizurkoak, eta gainontzeko bostak arabarrak: Astralabio, Bar Edu eta Euskalorros, Gasteizkoak; Jai Alai kafetegia, Aguraingoa; eta Rochling, Araiakoa.

## 12 orduko torneo

Goizeko 9:00etan hasiko da torneoko lehen jardunaldia. Hasieran ligaxka jokatuko dute taldeek. Guztira 5 jardunaldi izanen dira, eta 17:45ean despedituko dira partidak. Ondoren, final laurdenek ekingo zaie, 17:50etik aurrera, eta finalerdiak 19:30ean hasiko dira. Bukatzeko, 20:20ean 3. eta 4. postuak zehazteko partida jokatuko da, 10 minutu iraungo dituen, eta final handia 20:35ean hasiko da. Arbitroak Futsaraba areto futbol ligakoak izango dira, torneo solidarioarekin bat egin nahi izan dutelako.

## Zozketa erraldoia

Torneoan Zuriñeren aldeko zozketa erraldoia egingen da; futbol eta saskibaloi talde eta jokalariek ezagunek utzitako kamisetak eta taldeetako produktuak eta makina bat sari eta opari zozketa-tuko dira, 60 sari guztira. Zozketa-tako txartelak salgai daude.

"Torneoaren helburua gutxienez 5.000 euro lortzea da, Zuriñek beharrezkoak dituen komunikadore eta molde batzuk erosi ahal izateko" adierazi digu Jose Ramon Ramirez antolatzaileak.

## Araça babesteko Roberto Martil kapitainaren lezioa

**ARETO FUTBOLA** Osasuna Magna Xotak eta Aspil-Jumpers Ribera de Navarrak derbia jokatu zuten asteartean. Ikusle batek Araçaren kontrako oihu arrazista egin zuen eta Roberto Martil kapitain irurtzundarrak taldekidea defendatu zuen, zalea seinalatuz

Asteartean Osasuna Magna Xotak eta Aspil-Jumpers Ribera de Navarrak derbia jokatu zuten Tuteran. Partida oso lehiatua, azkenean 1 eta 3 gailendu zen talde irurtzundarra eta Espainiako Koparako sailkatzea lortu zuen. Baina gertakari batek mi-kaztu zuen poza.

Alexandre Araçak gola sartu zuenean, Osasuna Magnaren hirugarrena, besoak gora igo eta zerura begira jarri zen, gola zendu berri zaioren eskaintzeko. Une horretan, Aspileko jarraitzaile batek "negro de mierda" oihu egin zion, LaLigaSportsTv saioko kamarek zuzenean jaso zutena. Osasuna Xotako kapitain Roberto Martil zalearengana gerturatu eta behatzarekin seinalatu zuen, eta liskarra sortu zen jarraitzailearen eta Martilen artean. Istiluak gora egin zuen eta arbitroak txartel horia atera zion Martil irurtzundarrari.

Gertatutakoaren aurrean, Osasuna Magna Xotak eta Aspil-



Martil zalearekin. BLANCA ALDANONDO

Jumpers Ribera Navarar taldeek babesa azaldu nahi izan diote Araçari. "Xotan irain tamalgarria kondentzen dugu eta Valdepeñasen Bynhori gertatutakoaren aurrean egin genuen berbera egiten dugu: gure maitasun eta

babes osoa eskaintzen diogu bere aitari gola eskaintzen zion Araçari. Badakigu soilik pertsona baten iraina izan zela, Ribera de Navarraren zaleak ordezkatzen ez dituen" azaldu du talde berdeak. Erriberatik ere gertakaria salatzeke hitzak izan dituzte.

Gertatutakoak sare sozialetan soka luzea ekarri du eta Roberto Martilek aldeko mezu ugari jaso ditu, Araça taldekidea defendatzeko izan zuen jarreragatik. "KAPITAINA, maiuskulekin. Ez dago zalantzarik kapitain handia dugula" adierazi du Xotak.

## Gaur Palma Futsal hartuko dute berdeek NUP-en, 18:30ean

Movistar Inter da ligako liderra (35 puntu) eta Osasuna Magna Xota 5. da (25 puntu). Gaur, ostiralean, talde nafarrak sailkapenean hirugarrena den Palma Futsal taldea hartuko du Nafarroako Unibertsitate Publikoko pabilioian, 18:30ean, Anaitasun beste jarduera bat dagoelako.

## SAKANAKO TOPAKETAK

KIMUAK. 7. JARDUNALDIA	
IGANDEAN ETXARRI ARANATZEN	
10:00 Etxarri-Epele - Lagun Artea 08	
11:00 Altsasu A - Altsasu B	
12:00 Sutegei - Altsasu C	
13:00 Etxarri-Hartzabal - Etxarri-Danbolintx.	
Atsedean: Lagun Artea 09	

## ELOMENDI TXAPELKETA.

10. JARDUNALDIKO EMAITZAK	
Zaldua - Elomendi	6-2
SAILKAPENA	
ELOMENDIKO FUTBOL TXAPELKETA	
1 Barasoain	24
3 Zaldua	22
HURRENGO JARDUNALDIA	
ZEHAZTU GABE	

Elomendiko Futbol Txapelketan asteburu honetan ez da jardunaldirik jokatuko.

## BAXERRI ERRETEGIA

ARBIZU

Ospatzeko zerbaile duzu?

Senideen bilerak, urtebetetzeak, gau-jaiak...edozein gauzarako

Etxeko fritoak, eguneroko menua, asteburuko menu berezia, plater konbinatuak eta gosariak

Asteartetik ostiralera arte 11.30etatik aurrera Larunbata eta igandea 10:00etatik aurrera

948 460 737 / 642 06 09 91

# Bihar XX. Sakanako Xake Txapelketa Ziordian

**XAKEA** Sakanako Mankomunitateak antolatutako txapelketa bihar jokatu da, abenduaren 21ean, 10:00etatik aurrera, Ziordiko Errekakartea elkartearen. Egund osoko jarduna izango da eta elkartearen bazkalduko dute xakelariak

Eguberrietako bezperetan urtero xakearekin hitzordua izaten da Sakanan, Sakanako Mankomunitateak antolatutako Sakanako Xake Txapelketa baitago jokoan. Urtero Sakanako herri ezberdinean jokatzen da; aurten 20. edizioa izanen da eta Burunda aldean jokatuko da, Ziordian hain zuzen ere.

Proba antolatzeko, Sakanako Zaldi Beltza Xake taldearen, Nafarroako Gobernuaren eta Ziordiko Udalaren eta elkartearen laguntza izan du Mank-ek. Ziordiko Errekakartea elkarteak hartuko du aipatu txapelketa, bihar, abenduaren 21a, larunbata, goizeko 10:00etatik aurrera.



Joan den urtean Satrustegin jokatu zen txapelketa.

Egund osoko jarduna izango dute xakelariak eta bertan bazkalduko dute.

XX. Sakanako Xake Txapelketa, aldi berean, Nafarroako Txapelketa izanen da, 1.900 ELO puntutik behera. Metodologiari dagokionez, txapelketa 20 minutuko 8 partidara jokatuko da. Sariei dagokienez, helduen mailako lehenengo zazpiek saria jasoko dute eta gazteen mailako lehendabiziko hirurek.

Aurreko urtean Satrustegin jokatu zen XIX. Sakanako Xake Txapelketa eta 39 xakelarik hartu zuten parte, tartean 8 sakanadarrek. Txapelduna Jabier Habans izan zen, Axel Roviralta, Daniel Mugika, Diego Moral, Gregorio Sola, Mikel Otxoa eta Unai Ruizen aurretik. 16 urtetik beherako kategorian 10 urteko Oier Lacruz gailendu zen, Haimar Leone eta Pablo Mugikaren aurretik. Eta sakandarren artean Mikel Castellano izan zen finena.

## Izena emateko

Txapelketan aritu nahi duten xakelariak 9:30etik aurrera eman beharko dute izena, Ziordiko elkartearen (Prezioa, 5 euro).

## ARETO FUTBOLA Olaztiko IV. Hierros Aldasoro Torneoa jokoan

Beste behin Eguberrietan areto futbolaz gozatzeko aukera izango da Olaztin. Sutegi taldeak hainbat babeslerekin antolatuta, IV. Hierros Aldasoro Areto Futboleko Torneoa abenduaren 28an jokatuko da, Erburua kiroldegian.

Lehenik eta behin, benjaminen mailako lagunarteko partida jokatu dute Olaztiko Sutegik eta Uharte Arakilgo Aralar Mendik, 16:30ean, eta ordu bat beranduago helduen mailako hiru taldek ekingo diote torneoari: Uharte Arakilgo Aralar Mendik, Araiako Alipendi Zalditxok eta Gasteizko Batzarrek. 17:30ean Alipendi Zalditxo Aralar Mendiren kontra ariko da, 18:00etan Aralar Mendi Batzarrenen kontra eta 18:30ean Alipendi Zalditxo Batzarrenen kontra. Partida gehien irabazten dituen izango da txapelduna.

Joan den urtean Gasteizko Batzarre taldeak irabazi zuen Torneoa, Araiako Alipendi-Zalditxori finalean 2 eta 5 irabazi eta gero.

## Iñigo Aritza ikastolak baditu pilota txapeldunak

**PILOTA** Igandean txapelketako finalak jokatu ziren eta Joseba Ezkurdiak jarri zizkien txapelak irabazleei

Finaletan, LH3-n, Jurgi Reparazek 18 eta 3 irabazi zion Izei Orabengoari eta Naia Olaizek 18 eta 15 Eider Gastesiri; LH4-n, Egoi Urtasun 18 eta 14 gailendu zitzaion Ekaitz Zufiaurreri eta Alaine Mendia 18 eta 14 Anitz Andari;

LH6-n, Asier Zubiriak 18 eta 7 irabazi zion Urko Lanzari; DBH1-en Aimar Igoak 18 eta 5 irabazi zion Oier Carabiasi eta Iraide Vergarak 18 eta 17 Siets Goikoe txeari; eta DBH 2-n Oier Mitxelena 18 eta 13 Asier Astizi.



Joseba Ezkurdiak pilotariak eman zizkien sariak, neska-mutilen gozamenerako. UTZITAKOIA

Zorionak eta urte berri on!

**MAPFRE**

JOSE ANTONIO IMAZ PRIM  
jimazpr@mapfre.com  
948 563 354 · San Juan 48 behekoa · ALTSASU

**BILTOKI**  
TABERNA • JETETXER

Fotokopiak  
liburuak  
jostailuak  
opariak  
eskulanak

Zure opari denda

948 460 477  
Larrañeta 22, Etxarri Aranatz

**kaxeta**  
liburudenda / paperdenda

Fotokopiak  
liburuak  
jostailuak  
opariak  
eskulanak

Zure opari denda

948 460 477  
Larrañeta 22, Etxarri Aranatz

**Txalaparta**

Taberna

2020 urte berri on!!

948 467 070  
Zumalakarregi plaza  
**ALTSASU**



## Sakanako Nesken Pala Txapelketa finalei begira

**PALA** Bihar txapelketako 4. jardunaldia jokatuko da Olaztin eta abenduaren 28an finalak, Etxarrin

Azaroaren 30ean hasi zen Sakanako Mankomunitateak eta Etxarri Aranazko Gure Pilota elkarrekin antolatutako XV. Gure Pilota Sakanako Nesken Pala Torneoa eta asteburu honetan 4. eta azken jardunaldia jokatuko da, Olaztin. Final handiak, aldiz, abenduaren 28an erabakiko dira, goizeko 10:00etatik aurrera, Etxarri Aranazko Euskalerriri pilotalekuan.

Bi mailatan jokatzen ari da txapelketa, gaztetxoan eta helduen mailan. Gaztetxoetan 5 kategoriatan lehiatzen ari dira palistak: tximeletak, pottokak, usoak, kattagorriak eta txitoak. Eta, helduetan, bi mailan: eliteak eta promozio mailakoak. Nabarmenezkoa da palisten maila bikaina dela, helduetan bereziki. Puntapuntako palistak dabilta gurean, bertako onenak. Elite mailan dabilen Irati Igoak azaldu zigunez, "Sakanako txapela garesti dago, baina etxekoa lortzen saiatuko gara". Ea horrela den.

### 4. jardunaldia

Bihar, 10:00etan, Olaztin

#### Helduak

##### Promozioa (finalerdia)

- Olatz Zulaika-Narrea Otxoa / Enara-Uxue Mendinueta
- Ekhiñe Balerdi-Paula Gorostiaga / Elai Gomez-Andrea Lusarreta

#### Eliteak

- Uxue Murillo-Irati Igoa / Amaia Espinal-Maider Ardanaz
- Irati Saragueta-Maite Ruiz de Laramendi / Amaia Irazustabarrena-Leire Azanza

#### Abenduaren 14ko emaitzak

- Olatz Zulaika-Narrea Otxoa 30 / Ekhiñe Balerdi-Paula Gorostiaga 25
- Elai Gomez-Andrea Lusarreta 30 / Enara-Uxue Mendinueta 23
- Irati Saragueta-Maite Ruiz de Laramendi 30 / Amaia Espinal-Maider Ardanaz 28



Mendizale sakandarrak Aralarko santutegira bidean, duela bi urteko Mendigoizale Egunean. ARTXIBOA

# Mendigoizaleak Aralarra begira

**MENDIA** Igandean 55. Mendigoizale Eguna ospatuko da Aralarren eta bertan bilduko dira mendizale nafarrak. Sakanako Mendizaleak taldeak 8:30ean jarri du hitzordua, Lakuntzan. Hildakoak oroitu eta urtea despeditzeko modu polita da

Gabonen aurreko igandean, ohi bezala, Euskal Herriko Mendigoizale Eguna ospatuko da Aralarko Santutegian. Nafarroako mendizaleen egutegietan gorritz markatutako data da, klub guztietako mendizaleak bildu, euren ez daudenak oroitu, aspaldiko lagunak ikusi eta urtea despeditzeko egun aproposa baita.

1964. urtean, urte horretan hildako hiru mendizale gogoratzeko ekitaldia egin zen Aralarren eta hortik aurrera urtero errepikatu izan da. Hortaz, igandekoa festaren 55. edizioa izango da. Festa antolatzeko txandakatu egiten dira Nafarroako mendi klubak eta aurten Boscos eta Amaya klubei egokitu zaie.

#### Meza 11:00etan, eta ondoren auzatea

Goizean goiz ekingo diote mendizaleek Aralarra igotzeko lanari. Hainbat tokitatik abiatuko dira. Asko Uharte Arakildik, baina baita Lakuntzatik, Madotzetik, Lizarrustitik eta Lekunberri aldetik ere. Sakanako Mendizaleak taldeak goizeko 8:30ean jarri du hitzordua Lakuntzan, bertatik igoerari ekiten. Horrela, mendizale taldeak gutxika baina etengabe iritsiko dira Aralarko santutegira.

Goizeko 11:00etan izanen da mendizaleen meza nagusia. Mendiko materiala bedekatu dute eta Aralarko Mikel Goiaingeruari musu emateko aukera izango dute mendizaleek. Ondo-

ren, 12:00etan, Aralarko ostatuan hamaiketako izanen dute prest, trikitixa lagun dutela. Aspaldiko ezagunekin biltzeko aukera paregabea izango da igandekoa, eta ez dira kantak eta dantzak falta. Mendizale asko bazkaltzera geldituko dira, bai San Migelen bai ondoko herrietan, Sakanan. Egundua polita, bertara igotzeko gonbita egin du Nafarroako Mendi Federazioak eta Mikel Goiaingeruaren Kofradiak.

**Santutegian bi meza elizkizun** Kofradiatik adierazi digutenez, bi meza elizkizun izanen dira igandean: 11:00etakoa, mendizaleena, eta 12:30koa, igandeko meza nagusia.

## Urteari agurra eta ongi etorria mendian

Urte mendi tontorrean bukatu eta hasiko dute gure mendizaleek.

#### Ergako Trinitatea

Abenduaren 31n, Irurtzundik, 9:00etan. Irurtzundiko Iratxo eta Pikuxar elkarteak antolatuta, txokolatada eta Trinitaterako igoera. Aurten 14. edizioa izango da.

#### Aizkorri

Abenduaren 31n. Altsasuko Mendigoizaleak eta Olaztin Sutezik (goizeko 9:00etan, Intumisio plazan) deituta.

#### Lakuntzaskoari

Zabalarte mendi elkarteak antolatuta, abenduaren 31n, IX. Lakuntzaskoari igoera egingen da. Irteera goizeko 8:00etan, plazatik. Hamaiketako egingen dute.

#### Beriain

Ilbeltzaren 6an, igandearrekin, 9:00etan Unanetik. Sakanako Mendizaleak taldeak antolatuta, Errege Egunean urtero egin ohi duten bezala.

#### Bargagain

Ilbeltzaren 6an, domekan, Altsasuko Mendigoizaleak antolatuta. 9:00etan, plazatik. Goian hamaiketako.

## Iskizako erakustaldia

### GIMNASIA ERRITMIKOA

Igandean Eguberrietako erakustaldia egingo dute Iskiza Sakana eta Olaztin Sutezik gimnasia erritmikoko taldeek Altsasuko Zelandi kiroldegian, goizeko 11:00etatik aurrera. Eskola zein txapelketako taldeek hartuko dute parte, 60 gaztetxok baino gehiagok, eta koreografia ikusgarriak eskainiko dituzte.





# Agur 2019 urteari, korrika

**ATLETISMOA** Urtea despeditzeko makina bat San Silvestre daude gurean. Altsasuko San Silvestreak 41 urte beteko ditu, Olaztiko Lasterketak 18 urte eta Irurtzungoak 3. Eta Uhartre Arakilen II. San Silvestre Traila prestatu dute

Abenduaren 31n zapatilak jantzi eta 2019. urtea korrika despeditzera gonbidatu gaituzte Altsasan, Olaztin, Irurtzunen eta Uhartre Arakilen. San Silvestreak probarik herrikoiak eta kuttunenak dira korrikalariendako, urteari agur esateko modu polita. Sakanan lau lasterketa izango dira: Nafarroako proba zaharrena den Altsasuko San Silvestreak 41. edizioa beteko du, Olaztiko San Silvestreak, aldiz, 18. edizioa izanen du, eta III. Pikubestre lasterketa antolatu du Irurtzunen Pikuxarrek. Horretaz gain, Uhartre Arakilen II. San Silvestre Traila antolatu dute.



Altsasuko San Silvestrean giro bikaina izaten da. ARTXIBOA

## Altsasun 41 urte korrika

Dantzaleku Sakana klubak eta Sakana Triatloi Taldeak antolatuta, aurten 41. edizioa beteko du Nafarroako proba beteranoea denak. Aipatu proba, Mario Lopez de Uralde Memoriala izendatu zuten, bertan 17 urtez gailendu zen korrikalari altsasuarren omenez.

Abenduaren 31n, asteartearrekin, arratsaldeko 18:00etan emanen zaio hasiera Altsasuko San Silvestreari, gaztetxoekin lasterketarekin. Aurrebenjaminak (buelta bat), benjaminak (bi buelta), kimuak (3 buelta) eta haurrak (lau buelta) plaza inguruetan antolatutako zirkuituan ariko dira. Gainontzeko kategoriaz guztiek, kadeteetatik aurrera, 19:00etan Altsasuko udaletxe partetik abiatuko den proba nagusian (5 km) parte hartuko dute.

Korrikalariak Altsasun barna prestatutako zirkuituari hiru buelta eman beharko dizkiote. Aurreko urteko ibilbide bera da aurtengoa, eta soilik lehendabiziko hiruren denborak hartuko ditu antolakuntzak. Bukaeran sari ematea izango da.

Aurreko urtean 640 korrikalari hartu zuten parte 40 urte bete zituen Altsasuko San Silvestrean, eta 40 urte luze hauetan zendu-

## ALTSASUKO SAN SILVESTREA NAFARROAKO BETERANOENA DA: 41 URTE DITU

tako korrikalariak eta bazkideak –Juan Jose Igual, Hodei Iturrioz, Esteban Martinez, Iker Borrega, Daniel Ziordia, Goizeder Azazeta, Javier Martirena eta Mario Lopez de Uralde– izan zituen gogoan Dantzaleku-Sakana klubak, baita 40 urte hauetan proba irabazi zuten lau emakume altsasuarrak ere: Silvia Zulet, Loli Mendoza, Marijo Arza eta Jone Pelaez. Guztira 640 korrikalari aritu ziren, kategoriaz txikiak ere kontuan hartuta, eta helduetan Sergio Garcia de Eulate eta Izaskun Beunza gailendu ziren, euren 5. garaipena lortu zuten biek.

Antolatzaileek aurten ere urtea korrikari despeditzera animatu dute, primerako giroa izaten baita. Izena ematea dohainik da, eta aurretik egin daiteke, [www.dantzalekusakana.com](http://www.dantzalekusakana.com) web orrian. Bestela, egunean bertan eman daiteke izena.

## Olaztiko San Silvestrean lau kategoriazko lasterketa

San Silbestre lasterketaren 18. edizioa jokatu da urteko azken egunean Olaztagutian, 18:00etatik aurrera, Sutegi elkarteak antolatuta. 17:00etan zabalduko da izena ematea, Olaztiko frontoian. Urtero moduan, 4 kategoriazko lasterketak antolatu dituzte: txikiak, 7 urte artekoak (300 m), 8-11 urte bitartekoak (600 m), 12-15 urte artekoak (zirkuituari itzuli bat, 1.240 m) eta helduak, 16 urtetik gorakoak. Kasu honetan herri gunean antolatutako zirkuituari 4 bira eman beharko dizkiete korrikalariak, 5 km inguru osatzeko. Probak frontoian izango du irteera eta helmuga, eta giro ederra sortzen da bertan. Bukaeran sari ematea izango da.

## III. Pikubestrea Irurtzunen

Irurtzungo Pikuxar Euskal Txokoak, Piku Gabonak egitarauaren barruan, herri lasterketa antolatu du San Silvestre egunerako. Izen probioa du, Pikubestrea, eta aurten lasterketaren 3. edizioa egonen da jokoan. Gernika plazatik abiatuta, 16:30ean haurrak ariko dira –6 urte bitartekoak

150 metroko proba izanen dute eta 6 eta 14 urte artekoak 300 metroko proba– eta 17:00etan, aldiz, helduak (4,2 km). Herrian barna zirkuitu polita antolatu dute Pikuxarrekoak, korrikalariak behin eta berriz animatu ahal izateko.

Irurtzungo proban aritzeko 15 urtetik gorakoak 2 euro ordaindu beharko dituzte, eta hortik beherakoak, aldiz, dohainik dute parte-hartzea. Bukaeran, korrikalari guztien artean opari ederak zozketatuko ditu antolakuntzak. Izena ematea zabalik dago honako helbidean, abenduaren 31ko 12:00ak arte: <http://xurl.es/PikubestreInscrip>. Bestela, proba hasi baino lehen, Gernika plazan.

## II. San Silvestre Traila Uhartre Arakilgo igerilekuetan

Uhartre Arakilgo Aralar Mendi taldeak basoan eta mendian korrika egiten despeditu nahi du urtea. Horrela, II. San Silvestre Traila antolatu dute, Itxesi parkea abiapuntu hartuta jokatu dena, abenduaren 31n, 16:00etatik aurrera. Hiru kategoriazko jokatu da: benjaminak (6-9 urte) 16:00etan 400 metroko proba izanen dute aurretik; haurrak (10-13 urte) 16:10ean abiatuko dira, 800 metroko lasterraldia egiteko; eta, azkenik, kadeteak eta helduak, 14 urtetik gorakoak, 16:30ean San Vicenteko Bira osatuko dute (4.500 metro).

Izena ematea egunean bertan egin beharko da, Uhartre Arakilgo igerilekuetako tabernan, 15:30etik aurrera. Kategoriaz txikiak dohain dute parte-hartzea eta kadeteak eta helduek, aldiz, 2 euro ordaindu beharko dituzte. Lasterketaren ondoren auzatea eta txikiendako txokolate-jana izanen dira



Batzuk mozarrotuta igo ziren iaz.

## Txirrindularien urteko azken buelta Urbasa gainera

**TXIRRINDULARITZA** Altsasuko XXXVII. San Silvestre Zikloturista Martxa urteko azken eguneko goizean

Ez bakarrik korrikan. Sakanan ere bizikletarekin buelta emanda despeditzen da urtea. Sociedad Deportiva Alsasua-Altsasu Kirol Elkarteak makina bat urte daramatza San Silvestre Zikloturista Martxa antolatu. Aurten 37. edizioa izango du probak eta abenduaren 31ko 12:00etan abiatuko dira txirrindulariak, nobedade moduan Foru Plazatik.

XXVII. San Silbestre Zikloturista Martxarako izena ematea zabalik dago. Aurretik klubeko [www.sdalsasua.com](http://www.sdalsasua.com) web orrian egin daiteke. Bestela, probaren egunean bertan, Gure Etxean. Inskripzioa osatzerakoan bi aukera daude: 10 euro ordaintzea, inskripzio normala, edo 20 euro ordaintzea eta Conservas del Reynoko Eguberrietako lote ederra jasotzea.

Proba ez lehiakorra da, berez, baina lehia polita izaten da. Urbasa gainean, guztiek salda beroa izango dute zain. Gero, Altsasura jaitsi eta Foruen Plazan dortsala uzterakoan –13:45etik aurrera, gutxi gorabehera–, oroi-garria jasoko dute txirrindulariek. Zikloturista Martxa eguerdian aldatu zutenetik parte-hartzeak gora egin du etengabe eta iaz 215 txirrindulari eman zuten izena. Urtea despeditzeko modu polita.





# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / [kultura@guaxe.eus](mailto:kultura@guaxe.eus)

## OSTIRALA 20

**ALTSASU WILPF: Feminismo bakezaleak 100 urte.**  
Nafarroako Gobernuo bakearen, bizikidetzaren eta giza-eskubideen zuzendaritza nagusiak antolatutako erakusketaren bisita gidatua Concha Gaudo erakusketaren komisarioaren eskutik.  
18:00etan, lortia kultur gunean.

**ALTSASU Al son del cajon eta Brotes de Encina taldeen gabon kanta jaialdia La Encina Extremadurako kultur elkarteak antolatuta.**  
19:00etan, lortia kultur gunean.

**ALTSASU Ipuinen unea: Birjiñe Albira ipuin kontalariaren Japoniara ipuina.**  
19:00etan, lortia kultur gunean.

**ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioak.**  
20:00etan, plazan.

**ALTSASU Altsasukoak aske kontzentrazioa.**  
20:00etan, udaletxe parean.

**ALTSASU Madre filmaren emanaldian.**  
22:00etan, lortia kultur gunean.

**ALTSASU Las Tipex taldearen kontzertua. Ondoren, DJ DeathBass.**  
23:00etan, Foru plazan.

**OLAZTI DJ Anabearen eta DJ Mortiren emanaldia.**  
23:00etan, Barandi tabernan.

## LARUNBATA 21

**ALTSASU Musika eta Dantza eskolaren fanfarrea eta koruaren kalejira.**  
12:30ean, eskolatik.

**ALTSASU Gazte agenda. Emozioen kudeaketa.**  
17:30ean, Intxostiapuntan.

**ETXARRI ARANATZ Udal Musika Eskolako ikasleen Gabonetako kontzertua.**  
19:00etan, kultur etxean.

**ALTSASU Ahazten ez diren abestiak Trasteando taldearen Josefina Arregi klinikaren kontzertua eta disko aurkezpena.**  
19:30ean, lortia kultur gunean.

**ALTSASU Musika eta Dantza eskolaren haize eta metal taldeak.**  
20:00etan, Foru plazan.

## IGANDEA 22

**ALTSASU Irtzako bordetara 49 km-tako ibilbidea eginen dute Barranka mendi taldekoek.**  
08:30ean, taldearen egoitzan.

**LAKUNTZA Mendigoizale eguna ospatzeko Aralarrera ibilbidea eginen dute Sakanako mendizaleek.**  
08:30ean, plazatik.

**ETXARRI ARANATZ Txakurkrosa.**  
09:00etan, kanpinean.

**ETXARRI ARANATZ Mendigoizale eguna ospatzeko Aralarrera ibilbidea eginen du Larrañeta mendi taldeak.**  
09:00etan, plazan.

**ALTSASU Iskiza soinketa erritmoko taldearen Gabonetako erakustaldia.**  
11:00etan, Zelandi kiroldegian.

## ZORION AGURRAK



**Fran Arnaiz Gonzalez**  
Zorionak maitia! Gure konpontzaile politenarentzat muxu handi bat eta asko dantzatu asteburuan!



**Maren Azpiroz Andueza**  
Zorionak Maren! Abenduaren 19an 7 urte! Ondo pasatu zenuen, eh?! Maite zaitugu



**Luis Mariñelarena**  
Urte askuen Luis, eta besarkada estu bet lagun! Boltio, Oihan, hi ta beste geñakuek etxeratu artio ezta kik gu maitasune faltako! JTK! Hi launek...



**LAKUNTZA Bingoa.**  
17:00etan, kultur etxean.

**ALTSASU El parque mágico familiar teko filmaren emanaldia.**  
17:00etan, lortia kultur gunean.

**OLAZTI Laminatutur.**  
18:00etan, ludotekan.

**IRURTZUN Trasteando taldearen Josefina Arregi klinikaren aldeko kontzertu solidarioa.**  
18:30ean, kultur etxean.

**ETXARRI ARANATZ Etxarri Aranazko Abesbatzaren Gabonetako kontzertua Abesbatza Txikiaren parte hartzearekin.**  
19:00etan, elizan.

**ALTSASU Madre gaurkotasunezko filmaren emanaldian.**  
19:30ean, lortia kultur gunean.

**ALTSASU La quietud zineforum filmaren emanaldia.**  
19:40etan, lortia kultur gunean.

**ALTSASU Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa.**  
20:00etan, plazan.

## ASTELEHENA 23

**ALTSASU Pentsio duinen alde. Sakanako Pentsiodunen eta Adinduen Koordinakundea.**  
12:00etan, plazan.

## OSTEGUNA 26

**LAKUNTZA Mahaijolas autogestionatuak.**  
18:00etan, kultur etxean.

**ALTSASU Ventajas de viajar en tren gaurkotasunezko filmaren emanaldia.**  
19:00etan, lortia kultur gunean.

**ALTSASU Los días que vendrán zineforum filmaren emanaldia.**  
19:00etan, lortia kultur gunean.

## OSTIRALA 27

**IRURTZUN Euskal ekitaldiak. Euskara futbolearen seme-alabak gurasoen kontra. Aizpea euskal topaguneak antolatuta.**  
12:00etan, kiroldegian.

**ALTSASU Gazte agenda. Sex-gunea: Sexualitate Gazte Zerbitzua.**  
17:30etan, Intxostiapunta gazte gunean.

**LAKUNTZA Aralar dokumentalaren emanaldia.**  
18:30etan, kultur etxean.

**ETXARRI ARANATZ Orain Jon Gurutz, larriki gaixorik diren presoak etxera Orain Jon Gurutz lan taldeak deitutako manifestazioa.**  
19:00etan, plazan.

**SAKANA Hileko azken ostiraleko**

**Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioak Irurtzun, Uhartte Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku eta Olaztin.**  
20:00etan, plazan.

**IRURTZUN Gabonetako parkea.**  
17:00etan, pilotalekuan.

**ALTSASU Altsasukoak aske kontzentrazioa.**  
20:00etan, udaletxe parean.

**ALTSASU Ventajas de viajar en tren gaurkotasunezko filmaren emanaldian.**  
22:00etan, lortia kultur gunean.

**OLATZAGUTIA Pancho Balbuena mariatxiaren kontzertua.**  
23:30etan, Barandi tabernan.


## LARUNBATA 28

**OLATZAGUTIA Jolas parkea.**  
11:30etik 13:30era, kiroldegian.

**IRURTZUN Mus txapelketa.**  
16:00etan, Pikuxar euskal txokoan.

**OLATZAGUTIA Jolas parkea.**  
16:30etik 19:30era, kiroldegian.

**IRURTZUN Xaxardi liburu ilustratuaren aurkezpena eta ipuin kontaketa Jolanda Ziganda idazlearekin eta Iker Uribe ilustratzailearekin.**  
18:00etan, Pikuxar euskal txokoan.



**DEKOVEN NAVARRA**  
CARPINTERÍA DE P.V.C.

info@dekovennavarra.com  
www.dekovennavarra.com  
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia - ALTSASU  
Tel./Faxo: 948 468 360 · Telefono mugikorra: 690 641 860



**LAKUNTZA** Iñaki Bizkai akordeoilariaren diskoaren aurkezpena eta Puro Relajo taldearen kontzertua. 18:30ean, kultur etxean.

**ALTSASU** Haize Berriak bandaren eta Erkuden Ezeolazaren Gabonetako kontzertua. 19:30ean, lortia kultur gunean.

**ALTSASU** Gazte agenda. Kotigala: musika, karaokea eta afaria. 18:00etan, Intxostiapunta gazte txokoa.

## IGANDEA 29

**ALTSASU** Etxarriko hariztira 40 km-tako ibilbidea eginen dute Barranka mendi txirindula taldekoek. 08:30ean, taldearen egoitzan.

**ALTSASU** Bobby triku euskarazko familiarterko filmaren emanaldia. 17:00etan, lortia kultur gunean.

**ALTSASU** Ventajas de viajar en tren gaurkotazuneko filmaren

emanaldia. 19:30ean, lortia kultur gunean.

**ALTSASU** Los días que vendrán zineforum filmaren emanaldia. 19:40ean, lortia kultur gunean.

**ALTSASU** Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa. 20:00etan, plazan.

## ASTELEHENA 30

**ALTSASU** Pentsio duinen alde. Sakanako Pentsiodunen eta Adinduen Koordinakundea. 12:00etan, plazan.

**IRURTZUN** Film laburren emanaldia Urko Mauduiten esku. 19:00etan, Pikuxar euskal txokoa.

## ASTEARTEA 31

**LAKUNTZA** Lakuntzeskuarri mendi buelta eginen du Zabalarte mendi elkarteak. 08:30ean, plazatik.

**IRURTZUN** Txokolate jana eta Trinitatera igotzea.

09:00etan, Pikuxarretik.

**ALTSASU** San Silvestre 25 km-tako ibilbidea eginen dute Barranka mendikoek. 09:00etan, taldearen egoitzan.

**OLAZTI** Aizkorri ibilaldia eginen du Sutegi mendi taldeak. 09:00etan, Intsumisio plazatik.

## OSTEGUNA 2

**IRURTZUN** Zikoteka David Almazanen zirkutailerra. 4 eta 7 urte bitarteko haurrentzat. 10:30etik 12:00etara, Atakonodoa gimnasioan.

**IRURTZUN** Zikoteka David Almazanen zirkutailerra. 8 urte baino gehiagoko haurrentzat. 12:00etatik 13:30era, Atakonodoa gimnasioan.

**ETXARRI ARANATZ** Errepresaliatu gaixoak kalera, amnistia osoa. AEM. 19:30ean, plazan.

## OSTIRALA 3

**IRURTZUN** Zikoteka David Almazanen zirkutailerra. 4 eta 7 urte bitarteko haurrentzat. 10:30etik 12:00etara, Atakonodoa gimnasioan.

**ETXARRI ARANATZ** Gabonetako jolas parkea. 11:30etik 13:30era eta 16:30etik 19:30era, udal pilotalekuan.

**IRURTZUN** Zikoteka David Almazanen zirkutailerra. 8 urte baino gehiagoko haurrak. 12:00etatik 13:30era, Atakonodoa gimnasioan.

**ALTSASU** Gazte agenda. Intxostiapunta 2019 proiektzioa. 18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

**IRURTZUN** Mendiko eskia Norvegiako Fiordoetan dokumentalaren proiektzioa eta solasaldia Ipe Lizarragarekin. 19:30ean, Pikuxar euskal txokoa.

**ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ** Euskal presoak Euskal Herrira. 20:00etan, plazan.

**ALTSASU** Altsasukoak aske. 20:00etan, udaletxe parean.

**OLATZAGUTIA** The Nowhere plan The Beatles taldearen tributu taldearen emanaldia. 23:30ean, Barandi tabernan.

## LARUNBATA 4

**BAKAIKU** Mutxiangularra. Ondoren, pintxo poteoa. 18:00etan, plazan.

**ALTSASU** Gazte agenda. Bingoa. 18:00etan, Intxostiapunta.

**IRURTZUN** Bertso emanaldia: Larraungo eta Barañaingo bertso eskolak. 19:00etan, Pikuxar euskal txokoa.

## IGANDEA 5

**ALTSASU** Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa. 20:00etan, plazan.

## ASTELEHENA 6

**ALTSASU** Pentsio duinen alde. Sakanako Pentsiodunen eta Adinduen Koordinakundea. 12:00etan, plazan.



**IZARRA**  
HEMEN, ZURE ONDOAN  
AQUÍ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk  
zeinetan norbait  
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

**ALTSASU** Santa Cruz, 6  
**ETXARRI ARANATZ** Nagusia, 2

948 05 90 90 · [www.izarratanatorio.com](http://www.izarratanatorio.com)

OROIGARRIA

2019an hildako gure  
barkideak eta bezeroak  
gogoratuz



guaixe  
fundazioa

Sorlako diru bestekak...



## JAIOTZAK

- **Maddi Acebes Galbete**, azaroaren 28an Olaztin
- **Ekhi Azkona Lagos**, abenduaren 3an Altsasun
- **Uxue Lopez de Sabando Vidal**, abenduaren 10ean Altsasun
- **Anne Lizarraga Mayo**, abenduaren 12an Dorraun

## HERIOTZAK

- **Jose Sanchez Beltran**, abenduaren 13an Uharte Arakilen
- **Adelaida Lopez de Goikoetxea Imaz**, abenduaren 13an Olaztin
- **Fermin Lizarraga Lakuntza**, abenduaren 14an Arbizun
- **Pascual Garmendia Mauleon**, abenduaren 14an Etxarri Aranatzen

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

**IRACHE**  
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

948 19 70 70  
@Grupolrache  
Grupolrache  
[www.tanatoriosirache.es](http://www.tanatoriosirache.es)



## IRAGARKI SAILKATUAK

## NEGOZIOAK

**ERRENTAN HARTU**  
**Aizarozko ostata hartzeko:** Basaburua-ko Udalak Aizarozko ostata errentan emateko deialdia egin du. Interesa dutenek 948 50 30 35 telefonora hots egin dezakete.

## GALDUTAKOAK/OPATUTAKOAK

**GALDUTAKOAK**  
**Txamarra Etxarri Aranatz:** Gizonezko Geographical Norway(S) txamarra grisbeltza da eta kremailera gorri-laranjarekin, balkoitik erori zitzaidan Etxarri Aranazko kale nagusian. Ikusi baduzu deitu 626 216 612 telefonora. Mila esker.

**Audifono bat galdu dugu Etxarri Aranatz:** Aurkitu baduzu, mesedez deitu 649 341 114. Manoli.

## IKASTAROK

**Bakaikun lehen soro ospen ikastaroa:** Urtarrilean egingen da Bakaikuko elkartean (Datak apuntatzen direnekin adostuko dira). Izena eman urtarrilaren 6a baino lehen.

## OHARRAK

**Sei elkarterako boluntarioak:** Sei elkar-teak bakarrik dauden adingabe atzerritarrekin astean bi ordu egoteko 21 urtetik gorako boluntarioak behar ditu: asteartean Iturmendin eta ostegunetan Altsasuko gazte gunean, 17:00etatik 19:00etara. Interesa duenak 948 239 739 edo 673 329 449 telefonoetara hots egin dezake, edo gestion@asociacionsei.org e-postara idatzi dezake. www.asociacionsei.org, informazio guztia dago.

**Etxarriko irakurle taldea:** urtarrilaren 10ean, ostegunean, 19:00etan Etxarri Ara-

nazko liburutegian elkartuko dira eta Fertxu Izquierdoren "Mendeko borroka" liburuz arituko dira. Gonbidatuta zaude.

**Nafarroa Oinez 2019ri laguntza eman nahi izanez gero egin zure ekarpena ondorengo kontu korronteetan:** Laboral Kutxa ES39 3035 0102 3810 2005 4552 / Rural Kutxa ES58 3008 0003 0539 0183 6324 / Caixa-bank ES52 2100 3695 1322 1015 8880. Errenta aitorenak zure ekarpenaren agiria bidaliko dizute etxera.

**Aralarko santutegi ondoan dagoen Laguntzetxearen erakina zaharberitzeko** proiektuan lagundu nahi duenak ES 2700 754646 93 060 0001691 kontu korrontean egin dezake ekarpena. Mezenazgo Legean jasotako proiektua denez, dirua ematen dutenei errenta aitorenak egitean zati bat bueltatuko diote.

**Sakana Trenaren alde AHTRik Ez plataformakoak astearte-ro,** 19:00etan, elkar-ten dira. Bilerak Sakanako herri ezberdinetan txandakatu egiten dira. Informazio gehiago "Sakana Tren Sozialaren alde" Facebook profilean.

**Bidelagun izan nahi?** Mintzakide programaren bidez euskara praktikatzera elkar-ten dira hizkuntza ikasten ari direnak eta hizkuntzarako ohitura dutenak. Euskaldun batekin, bidelagun batekin aritzen dira. Bidelagun izan nahi duzu? 600 482 024 telefonon edo AEKren Itzasi eus-kaltegian duzu informazio guztia. www.iragarkiaburak.eus

# Antzerkia migrazioaren drama komunikatzeko

Tarima Beltza Altsasuko antzerki taldeak Medicos del Mundo Gobernu Kanpoko Erakundearen 'A la deriva' antzezlanaren egiten du ilbeltzaren 11n, larunbata, 19:30ean. Migrazioari buruzko istorioekin sortutako kontakizun bat da

## ALTSASUN

Sakanako Mankomunitatearen Anitzartean zerbitzuak antolatzen dituen ekimenetan "sentsibilizazioak" toki handia hartzen du, Bego Zestao Anitzartean zerbitzuko teknikariak azaldu duenez. "Beti sakandarren elkarbizitza hobetze aldera". Izan ere, teknikariak azaldu duenez, "batzuetan ideiak nahasita ditugu eta erreiritzi asko izaten dira". Zerbitzuak urte asko daramatza sentsibilizazio kanpainak egiten, eta "beste modu bat" bilatu nahi izan du: "Antzerkia oso egokia da mezua beste modu batean emateko". Hortaz, Tarima Beltza antzerki taldeari *A la deriva* antzezlanaren egitea proposatu zien, eta taldeak antzezlanaren 11n, larunbata, 19:30ean mustuko du Iortia kultur gunean.

Antzerkiaren bidez, eta, gainera, "hemengo" talde bat izanda jendearen "bihotzeraino" hobe iritsiko dela uste du Anitzartean zerbitzuko teknikariak.

*A la deriva* antzezlanaren da Tarima Beltzak oholtzaren gainera eramango duena. Juan Manuel Casero zuzendariaren lana da, baina eskubideak Medicos del Mundo Gobernu Kanpoko Erakundeari eman zizkion, haiek sentsibilizazio kanpainak egin zitzaizten. Dagoeneko La puerta



Blanca Fraile (Medicos del Mundo), Zapa (Tarima Beltza) eta Bego Zestao (Mank).

roja antzerki talde amateurak Iruñean eta Iruñerrian antzeztu duela esan du Blanca Fraile Medicos del Mundo GK Eren Nafarroako delegazioaren kideak: "Mugitzen garen pertsonak kanpaina egin dugu eta horren barruan antzezlanaren sartu genuen". Izan ere, Frailek azaldu duenez, migrazioaren inguruko "informazio asko dugu, albistegietan eta prentsan ikusten dugu", baina antzerkiak "alde afektiboena" irekitzen duela esan du. "Antzezlanaren ikusi duen jendea oso hunkituta ateratzen da".

Beraz, emanaldiaren ondoren debateak egin ohi dituzte, eta Altsasun ere egon dadin saiaturko dira.

Tarima Beltza antzerki taldearendako ez da erraza izan *A la deriva* prestatzea, Juan Manuel Herrero Zapak esan duenez. Hala ere, taldearendako "opari handi bat" izan dela esan du. "Migrazioaren drama kontakitzeko antzezlan bat prestatu behar genuela proposatu zigutenean, kosta zitzaigun". La puerta roja taldeari Sakanan emanaldia egiteko aukera eskaini zioten

ere. "Baina ezin zuten, eta lanean jarri ziren". Ondoan, Juanan Oyarzun zuzendari laguntzailea izan dute. "Asko lagundu digu. Benetan, opari bat izan da". Izan ere, lehenengo aldia da Tarima Beltzak horrelako lan "dramatikoa" egiten duela.

*A la deriva* migrazioaren inguruko hainbat istorioekin sortutako kontakizuna da. "Greziako teatro klasikoaren pieza batekin hasten da, eta jendea hor harrিতa gelditzen da. Horrela izango da ordu osoa?", esan du Frailek. Baina bat-batean eszena guztiz aldatzen da eta beste istorio bat kontatzen du, publikoa "zur eta lur" utziz: "Sentsibilitate asko biltzen dituelanak, ez du bakarrik migratzaileetan fokua jartzen, estatutik migratu behar izan zuen jendea buru hitz egiten du, hemengo jendeak nola hartzen dituen iristen direnak, edozein tabernatan eman daitezkeen eztabaidak aipatzen dira...". Hainbat esketxeekin osatzen den lan bat da, eta kontakizuna biltzen duen hari batek gidatzen du obra osoa.

## Umorea

Azken aldiaren mahai gainean jarri da umorearen mugak eztabaida. "Noraino sar daiteke komedia gai bat jorratzeko? Azkenean aldarrikapena badago, nik uste umorearen bidez ere landu daitekeela". Umorea eta komedia, beraz, hausnartzeko beste modu bat dela esan du Frailek.

Tarima Beltza komedia egitea ohituta dago, eta horregatik *A la deriva* antzezlanaren asko landu behar izan dute. Hala ere, ez dute La puerta rojaren "kopia" bat egingo: "Gure erregistroak eta esentzia mantenduko ditugu".

## Gabon oporrak 'ospatutzeko' musika ekitaldiak nonahi

Altsasuko eta Etxarriko musika eskolek eta Etxarri Aranazko Abesbatzak emanaldiak egingen dituzte

## SAKANA

Gabonak kantatzeko garaia izan ohi dira, eta Sakanako musika ikasleek eta musikariek egunotan hainbat ekitaldi egingen dituzte Eguberriak musikarekin zorientzeko.

Gaur Altsasun La Encina kultur elkar-teak antolatuta Al son del cajón eta Brotes de Encina taldeen gabon kanten kontzertua izanen da, 19:00etan, Iortia kultur gunean. Bihar, larunbata, Altsasuko Musika eta Dantza

eskolako ikasleak kalera aterako dira. Eguerdian fanfarrea eta korua ibiliko da kalejiran, eta, 20:00etan, Foru plazan haize eta metalen taldeek emanaldia eskainiko dute. Etxarri Aranazko udal musika eskolaren kontzertua izanen da ere bihar, larunbata, 19:00etan, herriko kultur etxean.

## Ahotsak

ETBko Ahotsak saioa irabazi ondoren egingen du Etxarri Aranazko Abesbatzak kontzertua

Etxarri Aranatz. Etzi, igandea, abenduaren 22an, izanen da, 19:00etan Etxarriko elizan.

Gabonetako kontzertu bat izango da, eta, beraz, ez dira gabon kantak faltako, abesbatzatik adierazi dutenez, baina, Ahotsak saioan abestutako kantak ere eskainiko dituzte. Gainera, 40 ume baino gehiagok osatzen duen Etxarri Aranazko abesbatza txikiarekin ariko dira hainbat abestitan. Errepertorio osatua eskainiko du Etxarriko Abesbatzak igandean.



# Gabonetakoa ez den Gabonetako kontzertua

Musikalak interpretatuko ditu Haize Berriak bandak abenduaren 28an, larunbata, 19:30ean, Iortia kultur gunean Erkuden Ezeolaza mezzo-sopranoarekin eginen duen kontzertuan. Gainera, bandarako eta altsasuarrendako sortutako lana mustuko dute

## ALTSASU

Haize Berriak bandak urtero kontzertua egiten du Eguberrietan, Iortia kultur gunean. "Iritsi nintzenezan esan zidaten: guk ez ditugu Gabonetan Gabon kantak interpretatzen", eta horrela dela konfirmatu du David Sanchez bandaren Gabonetako kontzertuaren zuzendariak. "Ez dago Gabonetako ezer. Pesadilla antes de Navidad filmaren abesti bat egin behar genuen, eta hor Eguberriari keinu bat egin behar genion, baina azkenean ez". Aurtengo kontzertuaren gaia musikalak dira eta Erkuden Ezeolaza mezzo-sopranoak bandarekin abestuko du. Hilaren 28an, 19:30ean, Iortia kultur gunean eginen dute emanaldia.

"Iñigo Casali Iruñeko konpositoreari eskatu genion kantariarendako eta bandarako lan bat egitea, eta konkretuki Erkuden Ezeolazarendako eta guretako lan bat eskatu genion". Lan horren mundu mustutzea 29ko kontzertuan izanen da. Obra "iraupen erdikoa" da, eta, beraz, "Erkudenen presentzia aprobetxatzeko eta ordu eta erdiko kontzertua egiteko" musikalak egitea erabaki zuten Haize Berriak bandak.

Bandak interpretatzen dituen abesti guztiak Ezeolazak kanta-



Haize Berriak banda entsegu batean.

tuko dituela esan du Sanchezek: "Elisabeth, No llores por mi Argentina edo Cats-en Memory abestiak bereziki Erkudenek abesteko aukeratu ditugu". Gainera, *Les Miserables*, *The Lion King*, *The Best and the Beaty*, *La la land* filma eta beste hainbat musikari "ospetsuen" musika eginen du Sakanako bandak.

Kontzertu hau Haize Berriak bandarekin egin dituen kontzertuetatik zailena izan dela aitortu du Sanchezek. Izan ere, "musikalak ezagunak dira eta zerbait gaizki ateratzen bada

nabaritzen da". Pieza zailak direla eta lan handia eskatu dutenak direla ere aipatu du zuzendariak.

Haize Berriak bandaren ildotik jarraitu dutela esan du: "Beste banda batzuk egitera ausartzen ez diren gauzak egiten dituzte". Musikalak lantzea "gustatzen zaiela" eta "motibatuta" daudela aipatu du. Hala ere, momentuz bakarrik musikalaren kantak interpretatuko dituzte, eta agian "etorkizunean nork daki" dantzatzera ere animatuko dira bandako kideak.



## Espetxeko poesia

Hodei Ijurko Irotzek 'Basatza, natura artifiziala gizartearen itzala' liburua kaleratu du, eta Etxarri Aranazko Xapatero tabernan aurkeztu zuen aurreko astean. Kartzelan hamar urtez egon zen Ijurko, eta bertan bititakoa poemetan islatzen zuen. Olerki horiek liburuan bildu ditu. Kalean idazten jarraitzen duela esan du etxarriarrak.



BAZTERRETIK

ALTSASUKO LIBURUTEGIA

## Liburu proposamenak

### HELDUENTZAT

**Aitaren etxea. Elkar, 2019**

*JAIO, Karmele*

Blokeatuta dago Ismael, bere nobela berriarekin aurrera egin ezinik, argitaletxetik deika eta... Gauzak okertu egingo dira, gainera, bere ama gaixotu egin dela eta, aitaz arduratu behar duenean.

Hiru pertsonaia nagusiren inguruan eraikitako istorioa da. Botere harremanek sortzen duten tentsioa dago kontatzen denaren azpian.

Idazlearen hitzetan: "Gure eguneroko harremanen azpitik lur azpiko ibaien antzera dabilen botere harreman horiek azalarazi nahi nituen, eragina dutenak gure harreman sentimentaletan, gure lanetan, gure familian, gure bizitzako eremu guztietan"

**KOMIKIA-HELDUENTZAT**  
**Euskaltzaindia, euskararen 100 urteko laguna. Euskaltzaindia, 2019**

*BALLESTEROS, Amaia, gidoia eta marrazkiak; ZABALA, Juan Luis, gidoia.*

Euskaltzaindiaren historia ahalik eta modurik atsegin eta entretenigarrienean kontatzen du. Komiki honek 72 orrialde ditu guztira, azal gogorra, koloretan argitaratu da eta lau ataletan

banatuta dago: Sorreratik 36ko Gerrara arte (1919-1936), 36ko Gerratik euskara batua sorrerara arte (1936-1968), Euskara batua sorrerara eta hurrengo hamarkadak (1968-2005), Aro berria (2005-2019).

**ALBUMA-HAURENTZAT**  
**Bonobo betaurrekodunen egiazko historia. Pamiela, 2014**  
*TURIN, Adela, idazlea; BOSNIA, Nella, ilustrazalea*

Bonobo arrak, emeak eta haurrak oiha batean bizi dira. Egun batean 4 bonobo ar Belfastera joaten dira ingelesa ikastera eta handik bueltan, ingelesa irakasten diete gainontzekoei. Ongi egiten duenari betaurreko moreak ematen dizkiote. Emeak ere saiatzen dira ingelesa ikasten eta baita lortu ere; baina betaurrekoak janzerakoan bonobo arrek iseka eta irri egiten diete, emeek buruan zapia eraman nahi dutelako. Emeak beste oiha batera joaten dira eta beren bizimoduarekin jarraitzen dute, haziak eta fruituak biltzen. Bonobo arrek arboletatik jaitsi behar izaten dute janari bila, gose baitira. Emeak eta kumeak dauden oiha-nera joaten dira zenbaitzuk beren bizimodu berria ezagutzera. Utziko al diete?

**PORTUKO**  
30 URTE  
Ogia egiten  
2020 urte berri on!  
Altsasu: 948 563 822  
Etxarri Aranatz: 948 460 988  
Urdiaín: 948 563 763

*Olga Martínez de Lagrán*  
PSIKOLOGIAN DOKTORIA  
Min kronikoaren tratamendu psikoemazionala  
Ardioetarako tratamendua  
Antzietatea, depresioa, beldurak eta labiak  
algamaitagami@yahoo.es  
639 408 118





Trasteando 2018ko Eguberrietan egindako kontzertuan. ANA VILCHES

## Musikak ez du memorian "iraungitze datarik"

Trasteando taldearen kontzertu solidarioa izanen da Altsasun bihar, 19:30ean, eta Irurtzunen etzi, 19:00etan

### ALTSASU

Duela 14 urte sortu zen Altsasun Trasteando taldea. "Iniziatiba sozialeko" musikak taldea dela azaldu du Kruz Mari Martinez Larrea taldeko kideak: "Musikak dibertitu eta entretenitu ez ezik, jendea lagun dezake". Hortaz, urtero Eguberrietan egiten duten kontzertua kausa bati eskaintzen diote; kontzertu solidarioak dira. Aurtengo berezitasuna da 25 urte bete dituen Josefina Arregi klinikari eskainiko diotela. Gainera, disko berria ere kaleratuko dute kontzertuan. Ahazten ez diren abestiak da kontzertuaren eta diskoaren izenburua.

"Hemengo eta hango abestiak jotzen ditugu, lehenengoak eta oraingoak". Iortia kultur gunean kontzertua eskainiko dute bihar, larunbata, 19:30ean. Dagoeneko sarrerak agortu dira. Hala ere, kontzertu solidarioaren bigarren pase bat egingen dute Irurtzungen kultur etxean etzi, abenduaren 22an, igandea, 19:00etan. Gainera, ilara zero bat ere martxan jarri dute, kontzertura joan ezin direnendako edo Josefina Arregi klinikarendako laguntza eman nahi dutenendako.

Taldearen eta Josefina Arregi klinikaren arteko harremana aspalditik dator, "taldea sortu zenetik" gogoratu du Martinezek: "klinikara hasieratik joaten gara. Bi emanalditxo egiten ditugu urtean. Eta pazienteak oso gustura egoten dira". Klinikaren egiten dituzten emanaldien errepertorioak aukeratzekoan "haien bizitzen soinu bandaren

musika" aukeratzen dutela azaldu du musikariak: "musika sentimenduetara eta bihotzera iristen da. Esaten dutenaren arabera musika memorian behin betiko gelditzen da, iraungitze datarik izango ez balu bezala". Trasteandok gertutik ikusten du musikaren ahalmena, izan ere, klinikaren egiten dituzten emanaldietan erantzuna handia izaten da: "Gurekin abesten dute, tarareatzen dute, txalotzen dute...". Gehien bat ezagutzen dituzten abestiekin gertatzen dela esan du altsasuarra.

### Betiko abestiak

Trasteando taldeak bertsoiak abesten ditu, gaztelaniaz eta euskaraz, eta aurten ere ingelesarekin eta italiarrarekin animatu dira musikariak. *Ahazten ez diren abestiak* diskoa 18 abestik osatzen dute, eta haietako bederatzia asteburuan egingen dituzten kontzertuetan interpretatuko dituzte; esaterako, Manu Chaoren Clandestino abestia edo Xabier Leteren Ameriketara joan nintzen habanera egingen dute. Abestiak gaika bildu dituzte. Beste batzuk publikoarendako berriak izanen dira.

Kontzertuen helburua "egoerak normalizatu" dela esan du Martinezek. Hortaz, Josefina Arregi klinikako zenbait pazienteek haien abestuko dute. Musika "laguntzeko" arma bezala erabiltzen du Trasteandok. Gainera, abestien estiloengatik "estimua handia" dion jendearengana iritsi dela esan du musikariak.

# "Jendea aurkezpenerako gogoekin dago"

## IÑAKI BIZKAI AKORDEOILARIA

Abesti ezagunen bertsoien disko berria kaleratu du lakuntzarra sentitzen den Iñaki Bizkai akordeoilariak. Lakuntzan aurkeztuko du hilaren 29an

### Erkuden Ruiz Barroso LAKUNTZA

Iñaki Bizkai akordeoilaria oso ezaguna da Lakuntzan. Antsoaingoa izan arren, dagoeneko "lakuntzarra" sentitzen da. *Gauean plazan vol. 3* disko berria kaleratu du eta abenduaren 29an, igandea, 18:30ean, aurkezpenera egingen du Lakuntzako kultur etxean. Puro Relajo taldearen laguntza izanen du.

### Gauean plazan vol. 3 diskoa kaleratu duzu. Beraz, aurretik vol. 1 eta 2 kaleratu zenituen.

Bakarka egiten dudana hirugarren diskoa da. Duela 25 urte edo publikatu nituen aurrekoak, eta lehenengoarekin oso harrituta gelditu ginen: 8000 kopia saldu nituen. Gainera, Tenampas mariatxi taldearekin aritu naiz ere, jota talde batean...

### Eta zergatik hirugarrena orain?

Egia esan, ez neukan intentzio handirik, baina jendeak eskatzen zidan. Lehenengo eta bigarren diskoak kaleratu ondoren, txorakeria kendu zitzaidan. Baina animatzeko eta beste bat egiteko eskatzen zidaten. Azkenean aurrera egin dut. Musikariak deitu nituen: La banda del Jefe Bigun taldeko musikariak, mariatxi taldearen tronpetak eta abar. Gaizki dago nik esatea, baina gauza oso polita bat gelditu da. **Zer nolako abestiak dira?**

Mexikanak, rantxerak... Patxanga. Normalean nik jotzen dudana. Joselu Anaiak edo Puro Relajo taldeek egiten dutena, baina instrumentala. Abesti ezagunak dira. Niri gustatzen zaizkidan eta emanaldietan gehien gustatzen diren abestiak sartu ditut. Bi abesti daude zendu diren bi pertsonen eskainita daudenak. **Zuzenekoak egiten dituzu?**

Berbenak egin ohi ditut. Bi nekarekin batera aritzen naiz, eta gizon orkestra ere banaiz. Bazkalosteetan jotzeko deitzen didate. Gertuko emanaldiak egiten ditut gehien bat. Herri txikietan errondak eta horrelakoak.



Iñaki Bizkai akordeoilaria diskoaren irudi batean. UTZITAKOA

## "LAKUNTZAN OSO ESTIMATUA NAIZ ETA LEHENENGO ALDIZ AURKEZPENA EGITERA ANIMATU NAIZ"

### Nola izan da diskoa grabatzea?

Diskoa grabatzeko aukera sortu zenean musikari laguntzaileekin hitz egin nuen eta hasieratik baietz esan zidaten. Pixkanaka errepertorioa ikusten hasi nintzen eta grabatzen hasi ginen. Altsasun grabatu genuen, eta lasaitasunez. Nik nirea grabatu nuen eta gero musikariak jotzen aritu ziren. Probak egin genituen gero: entzuten nuen eta zerbait aldatu behar bazen esaten nuen. Disko polita gelditu da.

### Hilaren 29an diskoaren aurkezpenera egingen duzu Lakuntzan, Puro Relajo taldearekin. Nolako izango da aurkezpenera?

Ongi egonen da. Sorpresak egongo dira. Ez da bakarrik akordeoiaren emanaldia izanen. Diskoak 40 minutu inguru irauten du, eta instrumentala denez, aurkezpenera baterako motz gelditzen zen. Beraz, Puro Relajoren

emanalditxo izanen da ere. Lagunak dira. Zendu diren pertsona hauei omenalditxo bat ere egingen diet, baita nire amari ere, ez baitiot inoiz ezer egin. Lehenengo aldia da aurkezpenera egiten dudana, eta, egia esan, urduri nago. Lakuntzako kultur etxea ez da oso handia, 200 bat pertsona sartzen dira, eta nik dagoeneko 50 sarrera erreserbatu ditut. Jendeak galdetzen dit ea non lor daitezkeen... gogo handia dago.

**Kontzertuak egitea pentsatu duzu?** Hasieran ez nekien aurkezpenera egin hala ez. Baina Lakuntzan oso estimatua sentitzen naiz eta, gainera, Patxolas, alkateak, esan zidan zerbait egin beharko genuela... eta antolatu dugu.

### Zergatik akordeoia?

Iruñeko akademia batean ikasi nuen 9 urte nituenean hasi eta 18 urtera arte. Nire aitak leku askotara eramaten ninduen, oso saltseroa zen. Berari akordeoia gustatzen zitzaion eta ikasi nahi zuen, baina garai horretan eta herri txiki batekoa zenez, ezin izan zuen. Beraz, bere ilusioa zen bere seme-alabetako batek ikastea. Ni txikiena nintzen. Askok gustatzen zitzaidan.



# "Eta zure aitona nola egiten du hau?"

Pedro Mari Amoztegi Ongairen ilobari lagun batek egindako galdera da. Jakin-minak eragindakoa. Tornuan eta fresagailuarekin lanean aritu ondoren, jubilatuta, ez du aspertzeko betarik. Saiakera askoren ondoren mugimendu ugari jaiotza sortu du.

Alfredo Alvaro Igoa SATRUSTEGI

## 1 Nondik heldu zaizu zaletasuna?

Ideiak bururatzan zitzaizkidan eta gauzaten nituen. Zerbait funtzionatzen zuenerako gau erdia hari bueltaka ematen nuen, eta hurrengo egunean egiten. Jarri-kendu, hobetzen.

## 2 Noiz hasi zinen jaiotzak etxean jartzen?

Urtero jartzen genuen. Gainera, goroldioarekin jartzen genuen. Orain goroldioa hartzeak beldurra ematen dit. Diotenez isuna jar dezakete. Horregatik, aurren, aurreneko zelar artifizialarekin egin dut jaiotza. Goroldioa gehiago gustatzen zait, argien kableak eta beste gehiago tapatzen dituelako. Goroldioa baratzeko paretan dut, baina ez naiz hartzera ausartzen. Goroldio hori hartzeko baimena non eska dezakedan galdetuko dut.

## 3 Eta jaiotzei mugimendua ematea erabaki zenuen?

Aspaldi hasi nintzen. Figura bat... ia. Agian ez dira jaiotzarako egokiak, baina tira.

## 4 Zergatik eman zenion mugimendua jaiotzari?



Pedro Mari Amoztegi Ongai bere jaiotzarekin aurrean.

Egin nezakeela pentsatzen nuen, eta probatu egiten nuen. Eta hau egin badut, beste zerbait egin dezaket. Pitteka-pitteka hasi nintzen. Motor bakoitzak mugimendu pertsonaia edo irudi ugari eragiten ditu. Irudi bat jarri. Eta gero bestea, eta bestea...

## 5 Zein motor erabiltzen duzu jaiotzan mugimendua sortzeko?

Mikrouhin labeetakoak batzuk, eta oilaskoak erretzekoentak besteak. Niri mantso joan daitezela interesatzen zait. Ordezko piezak saltzen dituzten Iruñeko denda batean eskuratzen ditut.

## 6 Mekanismo guztiak ez zenituen aldi berean egiten, ezta?

Ez, duela hamar bat urte hasi nintzen. Esaterako, ogia labean sartzen duena. Ogia sartzea, oso erraza. Baina, eta irudiak ogia sartzeko buelta erdi egiten badu? Eta labeko atea itxi eta zabaltzen bada? Gero arratoiak eta katua etorri ziren.

## 7 Jaiotzari zenbat motorrek ematen diote mugimendua?

Zazpik. Bat ur-ponpa da, errota eta errekarako. Arrantzalea. "Astronauta" eta beste animaliak ateratzen direna. Forjaria eta baso-mutila (aurten egina). Beste motor bat noriarendako. Okinarendako eta Jesus haurraren sehaskarendako. Mugimenduari garrantzi handia ematen diot. Eta ulertzen duen jendeak ere bai, ezkutuko lan handia dagoe-la ikusten dutelako.

## 8 Belengo estalpea, hiru erregeak, erreka, abereak... Ez da ezer falta, ezta?

Hala da. Eta jaiotzaren aldamean arbola dugu.

## 9 Mugimendua emateko irudiak landu beharko dituzu, ezta?

Bai. Arrantzalea, esaterako, kanaberarekin zegoen. Besoa moztu, gora eta behera mugimendua egiteko, espeka du mekanismoztat. Ezin izan nuen guztiz egokitu. Forjariaren eta baso-mutilaren kasuan besoa moztu, alderik alde ardatza pasa, irudia goitik behera zulatu nuen soka batek tira diezaion, lepora lotutako gomak goraka tiratzen du. Atzeko mekanismoak palanka bat tiratzen du eta hura pasatzean gomak tiratu egiten du eta horrekin besoak egurra moztu edo burdina jotzeko mugimendua egiten du.

## 10 Halako mugimendua makinatzea asko kostatzen da?

Ez nago egunero, uneoro, horrekin. Ideiak bakarrik heldu dira. Orain talka egiten duten ahari batzuk jarri nahi nituzke. Ez dit betarik eman. Oilo eta oilar batzuk, kulunkaren bat... Eta dena bakarrik egiten dut.

## 11 Bisitan etortzen zaizkizu?

Gutxi. Neska-mutikoak lagunekin. Helduren bat ere pasa da etxetik. Bakarren batek esan zidan ea jaiotza zergatik ez nuen Iruñeko Baluarteko erakusketara eramatea. Bai, zera! Han mugimenduren bat izanen dute, baina ez da honen antzekoa izanen. Baina hura ezin da honekin alderatu. Bestela ez naiz jaiotzen erakusketak ikustera joaten. Irurtzango elizakoa. Nik tokia mugatua dut. Segituko dut. Ideien faltan ez nago. Gustura nabil honekin, probak egiten, orduak ematen ditut. Bestela, taila, baratza, egurra... Ni ez naiz aspertzten. Ez zait lanik falta.

## BAZKIDE SARITUAK

- Ines Satrustegi Ganboa (Arbizu)
- Alodia Alvaro Igoa (Etxarri Aranatz)
- Catalina Sala Iribarren (Irurtzun)
- Jesus M<sup>a</sup> Olmos Amillano (Altsasu)

## ILBELTZKO SARIAK:

1. SARIA:  
 EKAINBERRI KOBAZULOAK: 2 SARRERA  
 ARTAZAKO KAMPINA: %10EKO DESKONTUA  
 LACTURALE: ESNEKI LOTEA  
 GATZUZULO: 3 HILABETZ DOAN

2., 3. ETA 4. SARIA:  
 DONOSTIAKO AQUARIUMA: SARRERA BANA  
 ARTAZAKO KAMPINA: %10EKO DESKONTUA  
 LACTURALE: ESNEKI LOTEA  
 GATZUZULO: 3 HILABETZ DOAN

CAMPING  
 ARTAZA

Ekain berri

lacturale

G  
 gaztezulo

AQUARIUM